



DOKTOREGO TESIA
Medikuntza Gradua

TESIS DOCTORAL
Grado en Medicina

DOCTORAL THESIS
Medical degree

Histopatologian oinarritutako tratamendu kirurgikotik proteogenomikak gidatutako doitasunezko kirurgiara

Del tratamiento quirúrgico basado en histopatología a la cirugía de precisión guiada por proteogenómica

From surgical treatment based on histopathology to precision surgery guided by proteogenomics

Egilea · Autor · Author
Aingeru Sarriugarte Lasarte

Zuzendariak · Directores · Directors
Joaquin Losada Rodriguez
Rafael Sarria Arostegui

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Histopatologian oinarritutako tratamendu kirurgikotik proteogenomikak gidatutako doitasunezko kirurgiara

Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea

Departamento de Neurociencias. Facultad de Medicina y Enfermería.

Área de Innovación en Cirugía, Trasplante y Tecnologías para la salud.

Instituto BioCruces

bi+cruces
bizkaia

AINGERU SARRIUGARTE LASARTE

2021

LABURPENA

SARRERA: Urdaileko minbizia difusoaren (UMD) prebalentziak gora egin du pixkanaka, heste-motarekin berdindu arte. Arazo kliniko eta terapeutiko handiak sortzen ditu, orain arte erabilitako tratamenduei ez baitie ondo erantzuten. Kirurgiaren hedadura, azpimota molekular proteomiko eta genomikoen arabera doitzeak paziente horien pronostikoa hobetu dezake. **MATERIALA ETA METODOAK:** Biziraupen-analisia duten atzera begirako bi azterlan deskribatzaile eta analitiko egin dira Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, 2005-2014 artean diagnostikatutako 1052 urdaileko minbizi kasuren inguruan. Gainera, UMDaren 3 kasuren pieza kirurgikoen kromatografia likido eta masa-espektrometria bidezko azterketa proteomikoa eta lortutako datuen analisi sistematizatua egin dira. Bestalde, minbizi gastrikoaren tratamenduan “% 95eko gastrektomia” berrikuntza teknikoaren segurtasuna baloratu da. **EMAITZAK:** UMDak proportzio handiagoan eragiten die emakumeei eta gazteei. Fase aurreratuetan diagnostikatzen da, eta nabarmentzekoak dira erasan ganglionarren tasa altua eta peritoneo-bideko barreiatza izateko joera. Pazienteen herenak baino gutxiagok irauten du 5 urte bizirik. Gaixotasunaren barreiatzea eta jasotako tratamendu kirurgiko eta kimioterapiko mota dira biziraupen orokorrarekin zuzenean erlazionatu diren faktoreak. Ikerketa proteomikoan, aurkitutako 12.551 produktu genikoetatik 2.197 proteina kuantifikatu dira; horietatik 75 nabarmendu dira, 45 tumore-ehunean, eta 30 ehun osasuntsuan. Detektatutako proteinen ehuneko handi bat zelulaz kanpoko matrizeari dagokio, eta horrek mikroingurune tumoralaren gaineko proteomaren garrantzia islatzen du. Identifikatutako proteinen funtzio molekularrak, epitelio mesenkima trantsizioan, ziklo zelularrean eta DNAREN erreplikazioan parte hartzea dira. Aztertutako kasu bakoitzaren profil proteomikoak aurrez deskribatutako UMDaren proteomaren maparekin konparatuta, kasu bakoitzaren azpimota molekularra identifikatu ahal izan da eta klinikarekin bat datorrela egiaztatu. **EZTABAIDA:** Urdaileko minbiziaren genoma eta proteomaren deskribapenean egin berri diren aurrerapenak helburu klinikoekin aplikatzen hasi behar direnak sailkapen molekular berriak ekarri dituzte. Gaur egun, posible da metodologia proteomikoa aplikatzea ebakuntza-gelan lortutako eta tumore-bankuetan gordetako tumore-laginen gainean, UMDaren sailkapen molekularra lortu eta bai diagnostiko zein tratamenduari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko. Kirurgia-marjinak hobeto definituz erauzketa lokala gidatzea; linfadenektomia egokiena orientatzea; peritoneo-barreiatzea iragarri eta tratamendurik onena aukeratzea; eta diana terapeutiko espezifiko onenak baloratzea dira, besteak beste, metodologia hori UMDaren tratamendu onkologikorako aplikatzearen abantailak. **ONDORIOAK:** Datu kliniko patologikoekin integratutako sailkapen molekular proteomikoa lagungarria da UMDaren kirurgia eta tratamendu gehigarria gidatzeko, doitasunezko kirurgiaren testuinguruan.

HITZ GAKOAK: Urdaileko minbizi difusoa (UMD), Histologia, gainbizia, proteo-genomika, Doitasunezko Kirurgia.

RESUMEN

INTRODUCCIÓN: La prevalencia del carcinoma gástrico difuso (CGD) ha aumentado de manera progresiva hasta igualar la incidencia del tipo intestinal. Este tumor plantea problemas clínicos y terapéuticos ya que no responde bien a los tratamientos empleados hasta el momento. La extensión de la cirugía ajustada a los subtipos moleculares proteómicos y genómicos, puede mejorar el pronóstico de estos pacientes. **MATERIAL Y MÉTODOS:** Se han realizado, dos estudios retrospectivos descriptivos y analíticos con análisis de supervivencia, sobre una población de 1052 casos de cáncer gástrico diagnosticados en el Hospital Universitario Cruces (HUC), entre 2005-2014; además, un estudio proteómico por cromatografía líquida y espectrometría de masas de las piezas quirúrgicas de 3 casos de CGD y un análisis sistematizado de los datos obtenidos. Por otro lado, se ha valorado la seguridad de una innovación técnica de la gastrectomía del 95% en el tratamiento del cáncer gástrico. **RESULTADOS:** El CGD afecta en mayor proporción a mujeres y a personas jóvenes. Se diagnostica en estadios avanzados y destacan la importante tasa de afectación ganglionar y la tendencia a presentar diseminación peritoneal. Menos de un tercio de los pacientes sobrevive a 5 años. La diseminación de la enfermedad y el tipo de tratamiento quirúrgico y adyuvante recibido, son factores que se han relacionado directamente con la supervivencia general. En el estudio proteómico, se han cuantificado 2197 proteínas, de los 12551 productos génicos encontrados; 75 de ellas mostraron diferencias significativas. 45 fueron reguladas al alza en el tejido tumoral y 30 reguladas al alza en tejido sano. Un porcentaje amplio de las proteínas detectadas pertenecen a la matriz extracelular, lo que refleja la importancia del proteoma del sobre el microambiente tumoral. Son funciones moleculares de las proteínas identificadas, participar en la transición epitelio mesénquima, en el ciclo celular, y en la replicación del ADN. La comparación de los perfiles proteómicos de cada caso analizado con el mapa del proteoma de CGD previamente descrito, ha permitido identificar el subtipo molecular de cada uno de los casos, constatando su coincidencia con la clínica. **DISCUSIÓN:** Los recientes progresos realizados en la descripción del genoma y proteoma del cáncer gástrico han dado como resultado nuevas clasificaciones moleculares que deben comenzar a aplicarse con objetivos clínicos. Actualmente es factible la aplicación de la metodología proteómica sobre muestras tumorales obtenidas en quirófano y preservadas en bancos de tumores, con el objetivo de obtener una clasificación molecular de CGD, que ayude a tomar decisiones de diagnóstico y terapéuticas. Guiar la resección local mediante una mejor definición de los márgenes quirúrgicos; orientar la linfadenectomía más adecuada; predecir y elegir el mejor tratamiento de la diseminación peritoneal y valorar las mejores dianas terapéuticas específicas, son algunos de las consecuencias de la aplicación de esta metodología para el tratamiento oncológico del CGD. **CONCLUSIONES:** La clasificación molecular proteómica integrada con los datos clínico patológicos, ayuda a guiar la cirugía y el tratamiento adyuvante del CGD, en el contexto de la cirugía de precisión.

PALABRAS CLAVE: Cáncer gástrico Difuso (CGD), Histología, Supervivencia, Proteo-genómica, Cirugía de Precisión.

ABSTRACT

INTRODUCTION: The prevalence of diffuse gastric carcinoma (DGC) has progressively increased to equal the incidence of the intestinal type. This tumor poses clinical and therapeutic problems since it does not respond well to the treatments used so far. The extension of the surgery adjusted to the proteomic and genomic molecular subtypes can improve the prognosis of these patients. **MATERIAL AND METHODS:** Two descriptive and analytical retrospective studies with survival analysis was carried out on a population of 1052 cases of gastric cancer diagnosed at the Cruces University Hospital between 2005-2014. In addition, a proteomic study by liquid chromatography and mass spectrometry of the surgical specimens from 3 cases of DGC and a systematized analysis of the data was obtained. On the other hand, the safety of “95% gastrectomy” technical innovation in the treatment of gastric cancer has been assessed. **RESULTS:** DGC is more common in women and young people. It is diagnosed in advanced stages and the significant rate of lymph node involvement and the tendency to present peritoneal dissemination stand out. Less than a third of patients survive to 5 years. The spread of the disease and the type of surgical and adjuvant treatment received are factors that have been directly related to overall survival. In the proteomic study, 2,197 proteins were quantified, of the 12,551 gene products found; 75 of them showed significant differences. 45 were up-regulated in tumor tissue and 30 were up-regulated in healthy tissue. A large percentage of the proteins detected belong to the extracellular matrix, which reflects the importance of the proteome on the tumor microenvironment. The molecular functions of the identified proteins, participate in the mesenchymal epithelial transition (TEM), in the cell cycle, and in DNA replication. Comparison of the proteomic profiles of each case analyzed with the previously described DGC proteome map has made it possible to identify the molecular subtype of each of the cases, confirming its coincidence with the clinical picture. **DISCUSSION:** Recent progress in the description of the GC genome and proteome has resulted in new molecular classifications that must begin to be applied for clinical purposes. Currently, it is feasible to apply the proteomic methodology on tumor samples obtained in the operating room and preserved in tumor banks, with the aim of obtaining a molecular classification of DGC, which helps to make diagnostic and therapeutic decisions. To guide local resections by better definition of the surgical margins; to orient the most appropriate lymphadenectomy; predicting and choosing the best treatment for peritoneal dissemination and assessing the best specific therapeutic targets are some of the consequences of applying this methodology for the oncological treatment of DGC. **CONCLUSIONS:** The proteomic molecular classification integrated with the clinical pathological data helps to guide the surgery and the adjuvant treatment of CGD, in the context of precision surgery.

KEYWORDS: Diffuse gastric cancer (DGC), Histology, Survival, Proteogenomics, Precision Surgery.

From surgical treatment based on histopathology to precision surgery guided by proteogenomics



Hospital de Cruces

2005-2014

1052 Gastric Cancer

Doctoral Thesis 4 Studies



Limitations of the histopathology




DGT increases with respect to IGC



Women and younger patients



Surgical treatment



Greater lymph node involvement (81.7% N+) and worse response to adjuvant treatments

Worse 5-year survival rate (32.2%)




Innovation in surgery



95% Gastrectomy: Alternative to systematic total gastrectomy



DGC Proteomics



Identification of DGC and normal tissue proteins


Proteogenomic classification of tumors



Proteogenomic study of gastric tumors



Precision surgery



Mindunari

ESKERRAK AGRADECIMIENTOS

Lehenik eta behin eskerrak etxekoei: Gorka eta Enara izan dira lan hau amaitzeko eragite, eta batez ere zuri, Ana, izan baitzara nire babes eta sostengu. Zor handia dut zuekin erabilitako ordu guztiak ezingo baititut bueltatu. Zuri aita, zuk piztu baitzenuen nigan kirurgilari eta unibertsitateko irakasle izateko gogoia. Eskerrik asko ama, langile sutsu izatearen eta lankideak errespetatu eta laguntzearen beharra ikusarazi baitidazu beti. Unairi beroena, egunero bizitza zer den gogoratzen didan anaia txikiari. Arantza eta Garbine, izan zaituztet beti eredu eta zuen txikitatiko hezkuntza gabe ez nintzateke gaur hemen gainean egongo, eskerrik asko. Osabari, gure hizkuntzan idazteko bidea erakutsi zidanari, eskerrik asko eta aurrera.

Este trabajo hubiera sido imposible sin el apoyo y ayuda de todos los miembros de la Unidad de esófago-gástrica del H. de Cruces. Me gustaría agradecer en especial a Jesus Mari Oleagoitia, recién jubilado jefe de la unidad, por todo lo que me ha enseñado tanto en el aspecto quirúrgico como humano. Gracias también a la nueva unidad EGBP por el apoyo y las horas de estos últimos meses, en especial a la “Guardia Patricia”. Gracias a Ana Sanjurjo y Alberto Colina por su apoyo y ayuda. A Raul por invertir en mi su tiempo como tutor de residentes y amigo confidente; y a Mikel y Hector por compartir tantos momentos, cada vez menos, de café con aroma científico.

Especial agradecimiento por los servicios prestados en el aspecto no solo estadístico sino de asesoramiento científico en el IIS Biocruces a Silvia, eta bereziki zuri Lorea, eskerrik asko. No me puedo olvidar de Eva donde siempre acudo cuando necesito algo de Anatomía Patológica. Gracias también a Laura y Erika por facilitarme todo lo referente al Biobanco.

Por último al Dr Losada por la dirección incansable de este largo camino que como dice, comienza donde esto termine.

AURKIBIDEA ÍNDICE INDEX

1. SARRERA/ INTRODUCCIÓN	21
1.1 SARRERA: URDAILEKO MINBIZIA	23
1.1.1 EPIDEMIOLOGIA	23
1.1.2 ETIOLOGIA	24
1.1.3 PATOGENIA	26
1.1.4 KLINIKA	27
1.1.5 DIAGNOSTIKOA	29
1.1.6 ANATOMIA PATOLOGIKOA	34
1.1.7 TRATAMENDUA	37
1.1.8 PRONOSTIKOA	43
1.1 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO	46
1.2 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO DIFUSO	46
1.2.1 INTRODUCCIÓN TEÓRICA	46
1.2.2 SARRERA KLINIKOA	50
2. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK/ HIPÓTESIS Y OBJETIVOS	57
2.1 HIPOTESIAK	59
2.1.1 Hipotesi klinikoak	59
2.1.2 Hipotesi alternatibo esperimentalak	59
2.2 HELBURUAK	59
2.2.1 Helburu klinikoak	59
2.2.2 Helburu esperimentalak	59
2.3 HIPÓTESIS	60
2.3.1 Hipótesis Clínica	60
2.3.2 Hipótesis alternativa Experimental	60
2.4 OBJETIVOS	61
2.4.1 Objetivos Clínicos	61
2.4.2 Objetivos Experimentales	61
3. MATERIALA ETA METODOLOGIA/ MATERIAL Y METODOLOGÍA	63
3. MATERIALA ETA METODOLOGIA	65
3.1 Estudio 1: IMPACTO DE LA ANATOMÍA PATOLÓGICA EN EL PRONÓSTICO DEL CÁNCER GÁSTRICO	67
3.1.1 Población en estudio	67
3.1.2 Clasificación de Lauren	68
3.1.3 Clasificación de la OMS	69

3.1.4 Análisis estadístico	69
3.1.5 Declaración de Ética	70
3.2 Estudio 2: VALOR PRONÓSTICO DEL DIAGNÓSTICO Y TRATAMIENTO DEL CÁNCER GÁSTRICO EN EL H.U.CRUCES	71
3.2.1 Población en estudio	71
3.2.2 Tipo de resección tumoral y tratamiento adyuvante	71
3.2.3 Clasificación por estadios y ganglios linfáticos	72
3.2.4 Análisis de datos	72
3.2.5 Comité de ética	72
3.3 Estudio 3: INNOVACIÓN EN TÉCNICA QUIRÚRGICA “Gastrectomía 95% totalmente laparoscópica”	73
3.3.1 Objetivos	73
3.3.2 Estadificación tumoral	73
3.3.3 Tratamiento	74
3.3.4 Técnica quirúrgica	74
3.3.5 Análisis estadístico	74
3.4 Estudio 4: ESTUDIO DE PROTEÓMICA SOBRE PIEZAS QUIRÚRGICAS DE CANCER GÁSTRICO DIFUSO.	74
3.4.1 Pacientes. Recolección de las muestras biológicas	74
3.4.2 Criterios de inclusión/exclusión	74
3.4.3 Tamaño muestral para el estudio piloto de cuantificación de proteínas	75
3.4.4 Datos demográficos, clínico-patológicos y de tratamiento	75
3.4.5 Metodología de la recogida de las muestras	75
3.4.6 Biobanco	75
3.4.7 Flujo de trabajo desarrollado para la identificación y cuantificación proteomica	75
3.4.8 Análisis proteómico de abajo a arriba en sentido ascendente	76
3.4.9 Criterios de selección de proteínas y péptidos	77
3.4.10 Análisis proteómico basado en cromatografía líquida y espectrometría de masas	77
3.4.11 Filtros utilizados para la presentación de los resultados del análisis proteomico	80
3.4.12 Sistemas bioinformáticos utilizados. Bases de datos integrados de recursos genómicos y proteómicos .	82

4. EMAITZAK/ RESULTADOS	85
4. EMAITZAK	87
4.1 ikerketa. ANATOMIA PATOLOGIKOAREN ERAGINA URDAILEKO MINBIZIAREN PRONOSTIKOAN	87
4.2 2 ikerketa. DIAGNOSTIKOA ETA TRATAMENDUAREN ERAGINA URDAILEKO MINBIZIAREN PRONOSTIKOAN	88
4.2.1 Linitis plastica (LP)	89
4.2.2 Estadiajea	89
4.2.3 Kirurgia osteko konplikazioak	90
4.2.4 Tratamendu gehigarriak	90
4.3 TEKNIKA KIRURGIKOAK ERABERRITZEAREN IKERKETA: «% 95eko gastrektomia guztiz laparoskopikoa»	90
4.3.1 Emaidza kirurgikoak	91
4.3.2 Anatomia patologikoaren emaitzak	91
4.3.3 Biziraupena	91
4.4 URDAILEKO MINBIZI DIFUSOAREN LAGIN KIRURGIKOETAN EGINDAKO PROTEOMIKA IKERKETA	91
4. RESULTADOS	93
4.1 Estudio 1: IMPACTO DE LA ANATOMÍA PATOLÓGICA EN EL PRONÓSTICO DEL CÁNCER GÁSTRICO	93
4.1.1 Datos demográficos/ Epidemiología	93
4.1.2 Anatomía patológica	96
4.1.3 Análisis de supervivencia	99
4.2 Estudio 2: VALOR PRONÓSTICO DEL DIAGNÓSTICO Y TRATAMIENTO DEL CÁNCER GÁSTRICO EN EL H.U.CRUCES	101
4.2.1 Datos demográficos	101
4.2.2 Anatomía patológica	107
4.2.3 Linitis plástica	108
4.2.4 Estadiaje	111
4.2.5 Resección local	112
4.2.6 Linfadenectomía	114
4.2.7 Complicaciones	121
4.2.8 Adyuvancia	123
4.3 ESTUDIO SOBRE INNOVACIÓN EN TÉCNICA QUIRÚRGICA: “Gastrectomía 95% totalmente laparoscópica”	126
4.3.1 Resultados quirúrgicos	127

4.3.2 Datos posoperatorios	128
4.3.3 Resultados de Anatomía Patológica	129
4.3.4 Supervivencia	130
4.4 Estudio 4: ESTUDIO DE PROTEÓMICA SOBRE PIEZAS QUIRÚRGICAS DE CANCER GÁSTRICO DIFUSO.	131
4.4.1 Características generales del proteoma del DGC	131
4.4.2 Distribución de las proteínas reguladas al alza en el tejido tumoral y sano	139
4.4.3 Subtipos tumorales basados en el proteoma de cáncer gástrico difuso.	144
4.4.4 Terapia dirigida	149
5. EZTABAIDA/ DISCUSIÓN	151
5. EZTABAIDA LABURRA	153
5. DISCUSIÓN	154
A. Características clínico-patológicas del Cáncer Gástrico difuso y su implicación pronóstica.	155
5.1 Epidemiología y demografía	155
5.1.1 Incidencia del cáncer gástrico difuso	155
5.1.2 Edad y sexo de los pacientes con CGD	156
5.2 Dificultades diagnósticas	156
5.3 Limitaciones de la Anatomía patológica en CGD	158
5.3.1 Clasificaciones histológicas	158
5.3.2 Linitis plástica	159
5.4 Limitaciones de los sistemas de estadificación en CGD	160
5.5 Particularidades del tratamiento del CGD	161
5.5.1 Tratamiento quirúrgico del CGD	161
5.5.2 Tratamiento Adyuvante	164
B. Perfil proteómico del CGD y aplicabilidad clínica	167
5.6 Caracterización multiómica del cáncer gástrico de tipo difuso.	167
5.6.1 Estabilidad genómica en el cáncer gástrico difuso	167
5.6.2 Análisis proteo-genómico en medicina y cirugía de precisión	167
5.6.3 Secuenciación completa del genoma	169
5.6.4 Análisis proteómico	169
5.6.5 Mutaciones somáticas que perturban las redes de interacción proteína - proteína	170

5.6.6 Subtipos moleculares de cáncer gástrico difuso	171
5.7 Aplicabilidad clínica	171
5.7.1 Definición del subtipo tumoral	172
5.7.2 Dianas terapéuticas	172
5.7.3 Cirugía personalizada y de precisión	174
6. ONDORIOAK/ CONCLUSIONES/ CONCLUSIONS	179
6. ONDORIOAK, EKARPENAK ETA MUGAK	181
6.1 ONDORIOAK	181
6.2 EKARPENAK	182
6.3 MUGAK	183
6.4 ETORKIZUNEKO IKERKETARAKO BIDEAK	183
6. CONCLUSIONES, APORTES Y LIMITACIONES	184
6.1 CONCLUSIONES	184
6.2 APORTACIONES	184
6.3 LIMITACIONES	186
6.4 LÍNEAS FUTURAS DE INVESTIGACIÓN	186
6. CONCLUSIONS, CONTRIBUTIONS AND LIMITATIONS	187
6.1 CONCLUSIONS	187
6.2 CONTRIBUTIONS	188
6.3 LIMITATIONS	189
6.4 FUTURE RESEARCH LINES	189
7. BIBLIOGRAFIA	191
8. ERANSKINAK/ ANEXOS	203
Anexo 1. Resolución CEIC parte clínica.	205
Anexo 2. Tabla 2.4 Univariante y Multivariante de supervivencia global y libre de enfermedad.	206
Anexo 3. Datos clínico-patológicos pacientes proteómica.	211
Anexo 4. CEIC-E estudio proteómica. (Adenda ampliación al H. Cruces)	213
Anexo 5. Proteínas destacadas en condiciones estrictas.	214
Anexo 6. Proteínas seleccionadas: Nombre, gen, código uniprot, función y dianas terapéuticas, de las proteínas de la vía señalización celular Rho.	216

Anexo 7. Características clínico patológicas y subtipos moleculares de Gee (PX1-3)	217
9. BAIMENAK/ AUTORIZACIONES	219
Autorización del/la director/a de la tesis	220
Autorización de la comisión académica del programa.	222
Autorización del consejo de departamento	224
Acta de grado de doctor	226
10. MATERIAL GEHIGARRIA/ MATERIAL ADICIONAL	229

1.

Sarrera Introducción

1.1 SARRERA: URDAILEKO MINBIZIA	23
1.1 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO	46
1.2 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO DIFUSO	46

1. SARRERA/ INTRODUCCIÓN

1.1 SARRERA: URDAILEKO MINBIZIA

1.1.1 EPIDEMIOLOGIA

Historia

Urdaileko minbizia Kristo aurreko 3000. urtetik aipatu izan da inskripzio zein eskuizkribuetan antzinako Egipton. Lehen ikerketa zientifikoa, ostera, intzidentzia eta hilkortasunari dagokionez, Veronan gauzatu zen 1760-1839 urte bitartean.

Intzidentzia eta prebalentzia

Urdaileko minbizia munduko minbizi ugarienetakoa da. MOEren arabera, mundu osoan zehar 952.000 kasu berri diagnostikatu ziren 2012. urtean, diagnostikatutako minbizi guztien % 6,8. Bosgarren minbizi ohikoena da mundu mailan, biriketako, bularreko, kolon-ondesteko eta prostatako minbizien ondoren. Aldaketa garrantzitsutzat har daiteke hori, balioespenen arabera, 1975ean lehen minbizi ohikoena izan zitekeelako¹.

Intzidentzia-jaitsiera horren azalpena hozkailu elektrikoen sorrera izan daiteke. Janari-kontserbarako erabiltzen ziren hainbat metodo ordezkatu zituen (hala nola, gatzagak, ketutako produktuak eta abar), urdaileko minbiziaren etiologiarekin erlazionatuta egon baitzitezkeen horiek. Alabaina, urdaileko minbizi mota baten, Lauren-en urdaileko minbiziaren sailkapeneko mota intestinalaren, intzidentziaren jaitsiera nabarmenagoa izan da difusoarena baino. Horrela, gaur egun, % 30 izan daitezke urdaileko minbizi difusoak.

Urdaileko minbizi kasuen % 70 baino gehiago (670.000 kasu) garapen bidean diren herrialdeetan gertatzen dira (456.000 gizonezkoen artean, 221.000 emakumezkoen artean), eta kasuen erdia Asian (batez ere, Txinan). Adina kontuan hartuz gero, intzidentzia-tasak bikoitza dira gizonezkoen artean.

Hilkortasunari dagokionez, urdaileko minbizia hirugarren heriotza-kausa da bi sexuetan mundu osoan (723.000 heriotza, guztien % 8,8). Balioetsitako hilkortasun-tasa altuenak Ekialdeko Asian izaten dira (24 hildako 100.000 gizoneko, 9,8 hildako 100.000 emakumeko) eta Ipar Ameriketako txikiena (2,8 eta 1,5, hurrenez hurren). Hilkortasun-tasak altuak dira bi sexuetan, bai Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, bai Hego zein Erdialdeko Amerikan.

Gure inguruan, urteen joanarekin behera egin dute minbizi honen intzidentzia- eta hilkortasun-tasek. Bizkaiko zaintza epidemiologikorako zerbitzuaren arabera, 2008. urtean Bizkaiko biztanleriari diagnostikatutako minbizi guztien % 4 izan zen urdaileko minbizia. Emakumeei dagozkien minbizien artean, bosgarren lekuan dago urdailekoa (111 kasu), eta gizonei dagozkien artean zazpigarren lekuan (168 kasu). Denboraren bilakaerari dagokionez, minbiziaren erregistroak ikertu zuen aldian (1996-2008) ikusi zenez, urteroko kasu kopuruak berdin jarraitu zuen, baina beheranzkoa izan zen intzidentzia estandarizatua bi sexuetan, populazioaren zahartzearen ondorioz: urtero % 2,8 emakumeengan, eta urtero % 2,3 gizonengan².

2000 eta 2012 urte-bitartean, 6.754 urdaileko minbizi kasu diagnostikatu dira EAEn, 4.320 (% 64) gizonezkoen artean eta 2.434 (% 36) emakumezkoen artean, urteko 520 kasu, (482-572). Batez besteko adina 70 urtekoa izan da gizonen artean, eta 74 urtekoa emakumeen artean. Epe honetan, intzidentzia jaitsiz joan da urteko: % 2,1 gizonengan eta % 1,5 emakumeengan. 2011-2015 bitartean, 1.127 gizon eta 675 emakume hil ziren gaitz honek jota.

2000-2012 urte-bitarteko adin guztietarako biziraupen osoa lehenengo urtean % 54,1 izan da gizonen artean, eta % 56 emakumeen artean. Bosgarren urtean % 28,5ra jaitsi da gizonen artean eta % 33,4ra emakumeen artean.

Gizonen artean 2000tik 2012ra igo egin da biziraupena: 7 puntuan lehen urtean (% 48,9 vs % 56,3), eta 3 puntuan bost urtera (% 25,8 vs % 28,6). Emakumeen artean, ordea, ez zen gauza bera gertatu, eta, kasu horretan, mantendu egin da biziraupena.

Banaketa geografikoa

Ikusi izan da urdaileko minbiziaren intzidentziak gora egiten duela iparraldean eta latitude altuko lurraldeetan. Horrela, intzidentzia altuko lurraldeak dira Asiako ekialdea bereziki, Europako ekialdea eta Hego Amerika, Ipar Amerikarekin eta Afrikarekin alderatuz.

1.1.2 ETIOLOGIA

Urdaileko minbizitzat definitzeko, gutxienez lotura esofago-gastrikotik 2 cm-ra dagoen kontrolik gabe biderkatzen den zelula anormalen multzoa nabarmendu behar da. Berau, kasuen % 90ean, adenokartzinoma motakoa izan ohi da.

Klasikoki, Laurenen 1963ko sailkapenari erreparatuz, urdaileko bi minbizi mota desberdintzen dira, epidemiologiari, etiologiari, patogenesiari eta eboluzioari dagokienez².

- **Urdaileko minbizi intestinala (UMI).** Ohikoagoa da gizonezkoen eta helduen artean. Inguruneko faktoreek eragina dute mota honen gain. Azken horren intzidentziak

jaitsiera azpimarragarria izan du azken urteotan, beste azpimotekin alderatuz.

- **Urdaileko minbizi difusoa edo lausoa (UMD).** Gazteagoen artean agertzen da gehienbat, sexu-desberdintasunik nabarmendu gabe, eta pronostiko okerragoa omen du.

Bestalde, aurretiaz aipatu bezala, urdaileko minbiziak garapen geografiko, etniko eta sozioekonomiko nabarmena dauka. Minbiziaren garapenaren sekuentzia guztiz ezagutzen ez den arren, ezagunak dira Laurenen sailkapenaren araberrako bi minbizi moten fisiopatologia bereizten duten zenbait puntu.

Mota intestinalari dagokionez, gastritis kronikotik eratorria den sekuentzia deskribatu izan ohi da; gastritis kroniko atrofikoak hesteetako metaplasia sortuko luke, non zelula batzuek displasia garatuko bailukete, eta prozesuaren amaieran hesteetako adenokartzinoma sortu. **Urdaileko minbizi lausoari edo difusoari** dagokionez (UMD), prozesua ezagunagoa da. Zelulen arteko loturen galera sortzen duten aldaketa genetikoak metatzen dira, eta zelulek zuten guruinak osatzeko gaitasuna galtzen da. Lotura-gaitasun hori CDH1 genean sortutako mutazio germinalen erruz gertatzen da, E-cadherina lotura-proteinen funtzioa aldatuz.

Urdaileko minbizi-prozesu hauek abian jartzen dituzten minbizi aurreko zenbait egoera ezagunak dira mota intestinalaren kasuan; hala nola, gastritis atrofikoa, ultzera gastrikoa, polipo adenomatosoak eta hesteetako metaplasia; hala ere, nahiz fisiopatologia ezagunagoa duen, lesio aurrekariak ez dira hain argi erlazionatzen minbizi lausoaren kasuan. Gastritis kronikotik eratorria den mota intestinaleko minbizi honen atzean **Helicobacter pylori** kartzinogeno nagusia egon daitekeela definitu du Munduko Osasun Erakundeak. Bakterioak sortzen duen urdail-gorputzeko hantura legoke garapenaren sorreran, atrofia eta hesteetako metaplasia eraginez.

Bestalde, urdaileko minbiziaren sorrerarekin erlazionatuak egon daitezke zenbait hartzaile, **dieta** eta inguruko faktore ere. Alde batetik, dietaren gazitasunak eta gatzetan mantendutako produktuen kontsumoak igo egin dezake minbiziaren maiztasuna. Tabakoak eta inguruko beste faktoreek konposatu nitrosoekiko esposizioa handitzen duten heinean, minbizia sortzeko gaitasuna ere izan dezakete. Tabakoaren eragin negatiboa argia den arren, ez da hain argia alkoholarekin duen erlazioa; ikerketa baten arabera, egunero ardoa edatea babesgarri ere izan daiteke. Urdaileko minbizien % 5-10 Epstein Barr birusarekin (EBB) erlazionatuta egon daitezkeela uste da; gainera, mota molekular konkretu bateko minbizia eragingo luke, ezaugarri kliniko eta histopatologiko konkretuak dituen. **Aurretik jasandako urdaileko kirurgiak** ere minbizia izateko aukerak handitzen ditu; urdail-muinoiko minbizia (UMM) eragin dezake, Bilroth II (gastroyeyunostomian), Bilroth I (duodenostomian) baino gehiagotan sortzen dena, behazun eta bareko jariakinen erreflexuarekin erlazionatuta.

Hartzaileari dagokionez, zenbait faktore genetiko ere erlazionatu izan dira minbiziaren sorrerarekin. Hasteko, A motako odol-taldea duten gaixoek batez ere minbizi mota lausoa izateko aukera % 20 handiagoa dutela dioten ikerketak argitaratu dira. Beharbada, gaixotasunaren sorreran ez da odol-taldearen antigenoekin erlazionatzen, baina aldaketa genetikoek estuki erlazionatzen dituzte odol-taldea eta gaixotasuna. Ildo beretik, anemia perniziosoa den gaixotasun autoimmunean sortzen den gastritis atrofikoak sortutako akloridria-egoera ere minbiziaren garapenaren arrisku-faktore bezala definitu da. Bestalde, nahiz gaixotasuna noizean behin sortu egiten den, sendi barneko errepikapena izaten da % 10ean. Gaixotasun hereditarioa izaten da % 1-3 artean, eta hiru sindromerekin erlazionatuta dago: *urdaileko minbizi difuso hereditarioa (UMDH), urdail proximaleko polipoetatik eratorria den adenokartzinoma, eta mota intestinaleko urdaileko minbizi familiarra*. Minbizia garatzeko aukera altuak daude hiru sindromeotan, baina UMDHa soilik deskribatu da genetikoki. Horretan, mutazio germinalak gertatzen dira CDH, E-cadherina lotura-proteina kodetzen duten geneetan. Autosomikoki gainjartzailea den gaixotasuna da, eta, gaztetan minbizia garatzeko aukera handiak dituztenez, gastrektomia osoa gomendatu ohi da 30 urte baino lehenago.

1.1.3 PATOGENIA

Esan bezala, zelula neoplasikoek jasaten duten desberdintze-ahalmenaren arabera, bi mota daude.

Urdaileko minbizi intestinala

Zelula ongi desberdinak dira, orokorrean esporadikoak. 1994. Urtean International Agency for Research on Cancer (IARC) elkarteak *Helicobacter pylori* bakterioa definitu zuen adenokartzinoma gastrikoaren lehen kausatzat, bereziki minbizi mota intestinalean (ez da ahaztu behar aldakortasun indibiduala: infektatutako 10.000 norbanakotatik hiruk baino ez dute minbizia garatuko). Hala ere, ez da ahanzi behar mikroorganismo honek faktore babesgarritzat joka dezakeela lotura esofago-gastro/kardiaseko adenokartzinoma intestinaletan³.

Helicobacter pylori bakterioak sorturiko gastritis kronikoak garatzen du gaitza, infekzioak kaltea eragin eta lau hamarkada edo gehiago pasatu ostean. Lehendabiziko fasean, gastritis ez-atrofikoa gailentzen da, bereziki zona antralean. Horrek linfozitoen, makrofagoen zein zelula plasmaticoen infiltrazioa suposatzen du, eta horrek, batzuetan, folikulu linfoideak sortzen ditu; laburbilduz, inflamazioa eragiten du. Inflamazio horrek guruinen galera edo gastritis atrofikoa dakar, eta hipokloridria eragiten du. HCl-ak aktibatzen dituen gastrina- eta pepsina-mailak murriztu egingo dira. Horren ondorioz, eta babes modura, urdailak metaplasia intestinala garatzen du, antro eta gorputzetik sakabanatuz. Bi metaplasia-gradu desberdintzen dira:

- Enterozitoen parekoak diren zelulak, bilotsuak eta eosinofilikoak.
- Mukosa kolonikoaren antza duten zelulak, zelula muki-jariatzaileak bereziki.

Metaplasia aldaketa anomaloa da, bidea leuntzen dio displasiari; azken hori neoplasia aurreko lesio bezala defini daiteke, nahiz eta lamina propioa errespetatu infiltraziorik gabe. Alde batetik, arrisku baxuko displasia dago (% 0-23), eta, bestetik, arrisku altukoa (% 60-85).

Azken fasean, lamina propioa zeharkatu eta infiltratzen da kartzinoma inbaditzaile bilakatuz. Dispepsia dutenen % 50ak gastritis kronikoa pairatzen du, eta horietatik % 60ak metaplasia intestinala. Kasu gutxi batzuek garatuko dute displasia eta, azkenean, minbizia.

Urdaileko minbizi difusoa

Kasuen % 5ean zelulak desberdin gabeak dira E-cadherina eranste-proteinan pairatzen duten kalteगतिक, proteina hori transkribatzen duen CDH1 genean izaten den metilazioa dela eta. Erlazio genetikoa ikusi da kasuen % 64an.

Ebstein Barr birusaren hainbat genek ere erlazioa daukatela ikusi da adenokartzinoma kasuen % 2-16an (EBER-1, EBER2, EBNA1, LMP2A, BARF0, BARF1), bereziki, lokalizazio proximalagoa duten minbizi difusotan. Hala ere, erlazioa ez da hain nabaria.

1.1.4 KLINIKA

Gure inguruan, urdaileko minbizia jasaten duten gaixo gehienak sintomak dituzten unean garatutako gaixotasun osaezina pairatzen dutenaren seinale dira. Diagnostikoaren unean, erdiak baino gehiago urdail inguruko eremuak gaitzen dituzten tumoreak dira, eta gaixo horien laurdenak baino ez du potentzialki osa daitezkeen tumorarik. Kirurgikoki osa daitezkeen urdaileko minbizi goiztiarrek sintomarik sortzen ez dutenez, oso gutxitan diagnostikatu ohi dira screening programetatik at. Intzidentzia altua duten zenbait herrialdek —hala nola, Japoniak, Venezuelak eta Txilek— ezarri dituzte jadanik gure lurraldeotan bularreko edo koloneko minbiziak goiz detektatzeko screening programak.

Pisu galera eta sabeleko min jarraitua dira sintoma klasikoak. Anorexiak, goragaleak, sabeleko minak, betetze goiztiarrak, disfagiak eta botakak eraginda kaloria gutxiegi jasotzeak eragindakoa da pisu galera, gehitutako jarduera kalorikoak eragindakoa baino gehiago. Mina sortzen denean, min ahula eta lausoa izan ohi da hasieran, eta gero eta zehatzagoa eta gogorragoa bilakaeran zehar. Disfagia urdaileko minbizi proximalarekin edo kardiako eta urdail-hestegorri loturako (UHL) minbizi gero eta ohikoagoarekin dago erlazionatuta. Bestalde, Auerbach plexuaren tumoreगतिक infiltrazioak sortutako pseudoakalasia ere gerta daiteke tumoreotan, eta minbizia ere kontuan hartu behar da

akalasiaren diagnostiko diferentziala egiterakoan.

Urdaileko minbizi difusoaren (UMD) kasuan, sintomak are ahulagoak izan ohi badira ere, sarri askotan, «linitis plastiko» bezala ezagututako urdailaren distentsibilitate gutxituak goragalea eta asetze goiztiarra sortu ohi ditu. Sintoma horiek urdail distalaren piloro inguruko tumoreen buxadura-sintomak ere izan daitezke.

Anemia ferropenikoa sortzen duen odoljario ikusezina ohikoa den arren, gaixoen % 20ak baino gutxiagok izan ohi ditu melena eta hematemesia. Gaixoen % 25ak ultzera gastrikoaren istorioa izan ohi du, eta osatugabeko ultzeren gastrokopia bidezko jarraipen zorrotza gomendatzen da horrelakoetan.

Neoplasia honen agerpen klinikoa oso aldakorra izan daiteke indibiduo batetik bestera: (1.1 taula).

Taula/ Tabla 1.1. Urdaileko minbiziak eragindako sintomak

Sintomak	Portzentajeak
Pisu galera	% 62
Min abdominala	% 52
Goragalea	% 34
Disfagia	% 26
Melena	% 20
Betetze goiztiarra	% 18
Ultzera antzeko mina	% 17

Hesteetako adenokartzinomaren kasuan, inbasio lokala begetantea eta zirkunskribatua da, eta metastasi hematogenoak emateko ahalmena du: gibela (% 30-35), birika (% 10-25), hezur-ehuna (% 1-4) eta giltzurrun gaineko guruinak (% 1-2).

Adenokartzinoma difusoari dagokionez, ostera, lokalki infiltratzailea da, eta, kasu batzuetan, «linitis plastikoa» sor dezake. Diagnostikoaren orduan, % 70ak baino gehiagok hedapen linfatikoa aurkezten du.

Bestalde, oso ohikoa da bide zelomikoari esker gertatzen den hedapen peritoneala; diagnostikoaren orduan % 5-20an positiboa da, eta berragerpenen % 50a suposatzen du UMDn ohikoagoa den metastasi mota honek. Gaur egun, hainbat teknika kirurgiko garatzen

ari dira gaixotasun peritonealari ekiteko: *Hyperthermic Intra Peritoneal Chemotherapy* (HIPEC) eta *Neoadjuvant Intra Peritoneal and Systemic Chemotherapy* (NIPS).

1.1.5 DIAGNOSTIKOA

Azterketa fisikoa

Uki daitekeen sabeleko masa da zeinurik usuena azterketa fisikoan, garatutako gaixotasunaren seinale izan ohi dena. Gaixotasunaren barreiadura-bide ohikoena inguruko gongoilak eta peritoneoa dira, eta gibela da metastasiek gehien erasaten duten organoa. Uki daitekeen gibleko masa arraroa da, metastasiak ugariak eta barreiatuak izan ohi baitira, eta fosfatasa alkalinoa igotzen dute sarritan. Aszitis kartzinomatosa bera ere gaixotasuna hedatzearen seinale izan daiteke sarri askotan. Gibel-gutxiegitasuna gaixotasunaren azken faseetan soilik agertzen da.

Batzuetan, obulutegiak, hezurak, sistema nerbioso zentrala eta ehun bigunak ere izan daitezke metastasien jomuga. Gaixotasunaren inguruko eta urruneko garapenaren seinale diren beste zenbait zeinu klasiko ere deskribatu izan ohi dira:

- **Krukenberg tumorea.** Peritoneoa erasota dagoenean agertzen den bi obulutegietako tumoreak sortzen duen masari deritzo. Douglasen zakuan uzukiko ukipenean agertzen den tumore edo masari **Blumerren ezkutu** deritzo.
- **Maria Jose ahizparen nodulua.** Zilbor-lotailuaren bitartez peritoneotik azalera barreiatutako tumorearen seinale da, zilbor inguruan agertu ohi den tumore gorrikara.
- **Lepautai gaineko Virchow gongoila.** Urruneko gongoilen agerpena pronostiko urriko datua izan ohi da. Minbiziaren geraleku ohikoetako bat lepautai gaineko gongoilak dira, azterketa fisikoan oso nabarmenak izan ohi direnak.
- **Irish gongoila** (axilarra).
- **Azaleko fenomeno paraneoplasikoak.** **Leser trelat:** keratosi seborreiko paraneoplasikoa da; bere fisiopatologia oraindik ez da ondo ulertzen. **Akantosis nigricans:** guruin pigmentatuak agertzen dira gorputzean zehar.

Azalekoak ez diren beste zenbait agerpen paraneoplasiko ere deskribatu izan dira; hala nola, anemia hemolitikoa, nefropatia mintzezkua, poliarteritis nodosoa, eta hiperkoagulabilitate egoerak (**Trousseau sindromea**).

Diagnostikoa

Diagnostikoa bi ataletan sailka genezake: alde batetik, minbiziaren diagnostikoa lortzea, non biopsia eta histologia sailkatuko bailirateke, eta, beste alde batetik, estadiatzea eta erauzgarritasunaren balorazioa.

Minbiziaren diagnostikoan, gastroskopia bidez edo kirurgikoki lortutako biopsiaren azterketa histologikoak du garrantzi handiena, zeina esperientziadun patologo batek egin behar baitu, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) ezarritako irizpideak kontuan hartuta [IV, C]. Garestia eta erasokorragoa den arren, **gastroskopia gold standarda** da gaur egun minbiziaren diagnostikoan, proba erradiologikoekin konparatuta sentsibilitate eta espezifikotasun altuagoak baititu eta tumore goiztiarrak diagnostika baititzake, bai eta erauzketa bidezko **diagnostiko histopatologikorako** laginak hartu eta zenbaitetan urdaileko minbizi goiztiarrak (UMG) tratatu ere. Diagnostikoa bereziki zaila izan daiteke urdaileko minbizi difusoaren kasuan (UMD), gero azalduko den moduan tumoreok submukosa inbaditzeko eta bertatik barreiatzeko duten gaitasuna dela bide, mukosaren itxura eta zenbaitetan biopsiak ere faltsuki negatibo izan baitaitezke. Hori dela eta, UMD susmatuz gero, biopsia aleatorioak eta sakonagoak hartzea gomendatzen da.

Ondorioz, eduki ditzaketen % 50rainoko negatibo faltsuak eta UMG diagnostikatzeko duten ezintasuna direla eta, diagnostikoari dagokionez, alde batera utzi dira bariozko ikerketa erradiologikoak, eta soilik laguntza bezala erabili ohi dira gaur egun neoplasien kokapenari buruzko informazioa lortzeko.

Estadiatzeari dagokionez, azterketa fisikoa eta anamnesiaren ostean egin beharreko proba sorta derrigorrezkoak dira hemograma, gibel- eta giltzurrun-funtzioaren probak, endoskopia eta kontrastedun gorputz osoko **OTA** (zerbiko-torako-abdomino-pelbikoa) (1. taula). Gainera, erauzgarria dirudien urdaileko minbizia duten gaixoengan laparoskopiak kartzinomatosi peritonealaren diagnostikoan eta erauzgarritasunaren balorazioan lagun dezake, morbilidadeterik gehitu gabe. Horrez gain, gaur egun derrigorrezkoa da **diziplina anitzeko talde** batek osatutako biltzarra eratzea urdaileko minbiziaren tratamendua hasi aurretik.

Estadiatzearen sailkapenean American Joint Committee on Cancer (AJCC) eta International Union Against Cancer (UICC) erakundeek sortutako **TNM sailkapena** erabiltzen da egun mundu osoan. Hiru parametrotan oinarritzen da: (T) oinarritzko tumorearen tamainaren eta hormaren inbasioaren arabera, (N) erasotako gongoil linfatikoen zenbakiaren arabera, horien kokapenari erreparatu gabe, eta (M) metastasien arabera. Nahiz eta inbaditutako gongoilen kokapenaren sailkapena (N1,2,3) erabilgarria eta garrantzitsua den pronostikoan, ikerketen arabera, gongoil positiboek kopuruak erlazio handiagoa du biziraupenarekin, hori delarik gaur egun erabiltzen dena TNM sailkapenean.

Bestalde, hestegorrira 5 cm hedatzen diren UHLko tumoreak (SiewertIII) hestegorrikoak

izango bailiran sailkatzen dira gaur egun AJCC/UICC 7 edizioko sailkapena sortuz geroztik.

Aipatutako probez gain, **erauzgarritasuna** ikertzen laguntzen duten beste zenbait proba egin daitezke, gaur egun eskuragarritasunaren arabera egiten direnak eta informazio garrantzitsua eman dezaketenak, bakoitza bere gomendatze-mailarekin. Erauzgarritasuna guztiz kontraindikaten duten bi ustezko egoera dira urruneko metastasiak eta odol-hodi handien infiltrazio lokala; hala nola, aorta edota ardatz zeliakoaren ahokatzeta, gibel-eta bare-arterien oinarrien erasanarekin. Bare-arteria distalaren infiltrazioa ez litzateke kontraindikazioa, blokean egindako urdailaren, barearen eta pankrearen erauzketa bidezkoa bailitzateke. Gainera, urdail inguruan (N1-2) agertutako itxuraz erasotutako gongoil linfatikoek ez dute kontraindikaten kirurgiarik. Bestalde, urruntasunean agertutako gongoilak (N3-4) —bare azpikoak, kaba-aorta artekoak, mediastinikoak— erauzketa kirurgikotik at egongo lirarteke, eta, beraz, erauzgarritasuna kontraindikatu lukete. Peritoneoko zitologia edo biopsia positiboak ere M1tzat har daitezkeenez, erauzgarritasunaren kontrako dira; beraz, peritoneoaren erasanaren susmo handiko gaixoengan **ikerketazko laparoscopia** gomendatuta egongo litzateke kasuok erauzketaren morbilitatetik baztertzeko.

Urdaileko minbizien % 5ak, gainera, *linitis plastika* izeneko urdail osoaren horma-zabalera guztiaren erasana pairatzen du, zeinek distentsibilitate gutxituko poltsa zurrunaren itxura ematen baitio urdailari. Linitisak oso pronostiko urria ematen dio gaixotasunari, diagnostikotiko kartsinomatosi-tasa oso altuekin, eta horrek, autore askoren ustetan, erauzteko aukera kontraindika dezake.

a) Ekoendoskopia

Tumorea estadiatzeko probarik garrantzitsuenetakoa da, **Tri eta Nri** buruzko informazio garrantzitsua ematen baitu, oso sentsibilitate eta espezifikotasun altuekin (T: S: % 85; E: % 90 eta N: S: % 83 E: % 67) erradiologo jakitunek burutua denean. Modu egokian zehazten du paretaren geruzen inbasio-maila eta tumore-gongoilak diren ala ez. Ekoendoskopia bidez egindako gongoilen biopsiak probaren espezifikotasuna handitu dezake. Konplikazio-tasa baxua duen arren (% 0,3), proba erasokorra da, eta, batez ere, aukeratutako kasuetan gomendatu beharrekoa. Gaur egun, gida gehienek gomendatzen dute M1 ez diren gaixo ororengan, eskuragarri dagoen bitartean, betiere kirurgia atzeratuko ez badu. Espresuki gomendatuta legoke, alde batetik, lokalki garatutako tumoreetan kirurgia aurreko kimioterapia edo kimioerradioterapia aukeratzeko, eta, bestetik, UMGetan endoskopia bidezko tratamenduak aukeratzeko orduan.

b) OTA

Estadiatzeko eskaner torako-abdomino-pelbikoa da beti lehenik eskatzen den proba. Zain barneko kontrastea erabiliz, hobeto ikusten dira tumorearen itxura eta kokapena. Gainera, aho-bideko kontrastea ere ager daiteke, eta kontraste hirukoitza sortu. TNMren

informazio garrantzitsua ematen du; metastasiak (M) ikusteko oso baliagarria da, batez ere gibel-metastasiak, urruneko gongoilak eta aszitisa antzemateko gai baita. Horiek agertzen badira, beharrezkoa ez den kirurgia ekiditeko froga garrantzitsuena den arren, faltsu positiboak direla-eta, sarritan, horien biopsiak behar izaten dira. Gainera, OTA berrienak ere ez dira gai izaten 5 mm baino txikiagoak diren metastasiak eta peritoneoko inplanteak ikusteko, eta OTA negatiboa duten pazienteen % 20-30 artean negatibo faltsuak agertzen dira. Tumorearen horma barneko infiltrazioa (T) eta inguruko gongoilak (N) ikusteko ez da hain erabilgarria; normalean (% 50-70), T infraestadiatu eta positibo faltsuak igortzen ditu 0,8 mm baino txikiagoak diren gongoilekin (zenbaitetan ikusten ez direnak), eta besteetan hanturak handitutako gongoilekin.

c) PET (18 fluorodeoxyglukosa erabiltzen duen positroien emisio bidezko tomografia)

Tumoreak handiak direnean, metastasiak susmatzen ditugunean (M) edo N hobeto zehaztu nahi dugunean aholkatzen da PETa. Metastasi txikiak ikusteko OTAk baino sentsibilitate altuagoa du, eta gongoilak zehazten OTAk baino espezifikotasun altuagoa. Hala ere, UMLn ez da oso erabilgarria, zelulok gutxitutako metabolismoa ager baitezakete, negatibo faltsuak aurkeztuz; gainera, kartzinomatosi peritonealaren kasuan, % 50eko negatibo faltsuak eman ditzake. Hori guztia dela eta, PETa ez da urdaileko minbizi kasu guztietan gomendatzen, kasu aukeratuetan baizik (III,B).

d) Tumore markatzaileak

Odoleko CEA, CEA125, CA-19-9 eta CA72-4 markatzaileak altu egon daitezke urdaileko minbizia duten gaixoengan; hala ere, oso sentsibilitate eta espezifikotasun baxuak erakusten dituzte. Etorkizunean erreminta moduan oso erabilgarriak izan daitezkeen arren, gaur egun ezin daiteke horietako bat bera ere kontuan hartu urdaileko minbiziaren tratamenduaren gaineko erabakirik hartzeko. Tratamendu osteko gaixotasunaren berragertzea jarraitzeko erabili ohi dira, nahiz ez duten baliagarritasun zehatzik erakutsi.

e) Laparoscopia esploratzailea

Proba erasokorra den arren, gai da T1 baino altuagoa duten urdaileko minbizietan agertzen den OTA bidez ikusezinak diren gibeledako metastasia eta kartzinomatosi peritoneala antzemateko kasuen % 20-30ean. Bereziki baliagarria da gaixotasun zabaldua izateko aukera handiak dituzten tumore handietan, T3 (OTAn > 5cm), T4 edota N positibo dutenetan. Gainera, tresna aproposa da peritoneoaren zitologia lortzeko; positiboa bada, kirurgia bertan behera utzi eta kirurgia aurreko kimioterapia bidezko tratamendua aukeratzea gomendatuko da (III,B).

Diagnostiko goiztiarra

Erauzketa kirurgikoa da, batez ere kirurgia inguruko tratamenduekin konbinatzen

denean, gaur egun biziraupen-tasa altuena aurkezten duen tratamendua. Erronka nagusia, baina, minbiziaren diagnostikoa potentzialki osa daitekeen unean egitea da. Herrialde garatuetan diagnostikoen bi heren III. eta IV. estadioetan egiten dira egun, eta % 10 baino ez da lortzen I. estadioan. Biztanleria osoko screening-programak planteatu dira intzidentzia altua duten herrialdeetan; esate baterako, Japonian. Gurea bezalako intzidentzia baxuko herrialdeetan, baina, kanpaina hauek garestiak eta errentagarritasun baxuegikoak izango lirateke.

Hala ere, arrisku altuko zenbait pertsona hautagai izan litezke diagnostiko goiztiarraren kanpainak bidean jartzeko. Aurrebaldintza genetikoak (familiako UMDa pairatzeko CDH-1 mutazioak), faktore dietetikoak, azido-jariatze handitua, H. pylori, Barrett hestegorria eta urdaileko minbiziarentzako beste zenbait arrisku-faktore dituzten gaixoak izan daitezke abiapuntu. Ikerketen arabera, sintomak dituzten gaixoengan egindako screening-kanpainek igo egin ditzakete I. estadioetan dauden kasuen diagnostikoak % 4tik % 26ra.

Bestalde, odoleko zenbait markatzaile frogatu izan dira screening kanpainetan. Egun, pepsinogeno IIren igoera-tasak edo pepsinogeno Ien jaitsierak ikertzen ari dira, baina sentzibilitate eta espezifikotasun-tasa baxuak dituztela ematen du; beste faktore batzuekin konbinazioan aplikatu beharko lirateke.

Ikerketa gehiago eta zabalagoak behar dira eremu honetan, garai goiztiarretan egiten den diagnostikoa baita gaur egun urdaileko minbizia osatzea berma dezakeen faktoreetako bat, kirurgiarekin eta kirurgiaren inguruko tratamenduekin batera.

Taula/ Tabla 1.2. TNM estadiajea. 7. edizioa 2009 (AJCC/UICC).

Sintomak	NO	N1 (1-2)	N2 (3-6)	N3a (7-15)	N3b (>16)
T1 Mukosa/submukosa	IA	IB	IIA	IIB	IIB
T2 Muscularis propia	IB	IIA	IIB	IIIA	IIIA
T3 Subserosa	IIA	IIB	IIIA	IIIB	IIIB
T4a Serosa	IIB	IIIA	IIIB	IIIC	IIIC
T4b Inguruko organoak	IIIB	IIIB	IIIC	IIIC	IIIC

1.1.6 ANATOMIA PATOLOGIKOA

MAKROSKOPIKOKI

Urdaileko minbizi goiztiarra

Urdaileko kartzinoma goiztiar deritzo mukosara eta submukosara mugatzen den tumoreari, nahiz gongoil linfatiko positiboak izan eta tumorearen tamainari ez erreparatu. Orokorrean, 2 cm baino gutxiagoko tumoreak izan ohi dira, gongoiliek gabekoak eta, sarritan, urdailaren biribilgune txikian kokaturikoak. Batzuetan, multifokalak izan daitezke, pronostiko txarragoa aurkezten dutelarik. Pariseko azken sailkapenak zenbait azpimotatan sailkatzen ditu tumoreok, itxura makroskopikoari dagokionez.

Lamina propioaren inbasioak definitzen du mukosa barneko kartzinoma, *in situ* edo gradu altuko displasiatik bereiztea oso garrantzitsua delarik, azken horrek ez bezala eta koloneko edo beste zenbait minbiziren aldean metastasiak sortzeko gaitasuna baitu.

Orokorrean, pronostiko oneko tumorea da goiztiarra, garatutako urdaileko minbiziaren aldean. 5 urteko jarraipenean, % 90eko biziraupen-tasak izan ditzake, tratamendu eta jarraipen egokiak eginez gero. Horretarako, garrantzitsua da kirurgia eta kirurgia aurreko tratamenduak bideratuko dituen kirurgia aurreko minbizi goiztiarraren diagnostiko zehatza. Itxura makroskopikoa lagungarri izan daitekeen arren, biopsia laginetan mikroskopikoki jasotako informazioan eta kirurgia aurreko ekoendoskopian eta OTA froga osagarrietan oinarritzen da diagnostikoa.

Urdail-hestegorri loturako tumoreak

Tumorearen kokapenaren arabera, urdail-hestegorri lotura inguruan dauden tumoreak sailkatzeko, AJCCren TNM sailkapenaren 7. edizioak Siewert-en sailkapenaren arabera sailkatzen ditu, hiru taldetan: Siewert I, tumorearen oinarria hestegorrian, Z lerrotik gora dagoenean, hestegorriko tumore legez sailkatuko litzateke; Siewert II, tumorea kardian bertan dagoenean; Siewert III, gastrektomia luzatua = gastrektomia osoa + esofagoaren 5 cm.

Linitis plastikoa

Linitis plastiko (LP) kontzeptua erabiltzen da minbizi difusoak urdaila bezalako organo hutsei erasaterakoan eragiten dien zurruntasuna adierazteko; forma mantentzen dute, baina uzurtuta geratzen dira. Berez, urdaileko minbizi lausoak hartzen duen itxura makroskopikoa deskribatzeko sortu zen arren, digestio-aparatuaren edozein hestegmentu har dezake. Zelulen arteko lotura galerak eskaintzen dien hedatzeko gaitasuna dela eta, submukosan zeharreko heste-horma osoan zehar barreiatzen dira erraztasunez,

organoari itxura makroskopiko tipikoa eskainiz. Digestio-aparatuaren beste kokaguneetan agertzen denean, orokorrean urdaileko minbizi lausoaren metastasi moduan agertu ohi dira, nahiz eta zenbaitetan organoaren beraren minbizi primario moduan ere deskribatu izan diren; adibidez, heste zuzenaren kasuan.

MIKROSKOPIKOKI

Sailkapen histologikoak

Urdaileko minbiziak heterogeneotasun zabala aurkezten du, bai eraikuntza histologikoari eta bai zelulen egiturari dagokienez; ondorioz, sarritan, egitura histologiko ezberdinak izan ditzake tumore berak. Azken hamarkadetan eta gaur egun arte, **Laurenen sailkapenean** oinarrituta bereizi eta tratatu izan dira urdaileko tumoreak, zeinek heste itsurako adenokartzinoma (% 55) eta urdaileko minbizi lausoa (% 30) bereizi baitzituen, sailkaezinak ziren tumoreak (% 15) ere nabarmendu zituelarik.

2010eko **MOEren sailkapenak** 4 azpimota histologiko sailkatu zituen: tubularra, papilarra, mukitsua eta kohesio urrikoa (zigilu-eraztun motako kartzinoma zeluladuna barne); beste alde batetik, urdaileko minbizi mota ezohikoak⁶.

Adenokartzinoma **tubularra** da urdaileko minbizi mota histologiko ohikoena. Masa polipoide edo fungoideak osatzen ditu makroskopikoki, eta mikroskopikoki tamaina askotako banatutako tubuluak, mukiz beterikoak.

Bigarren mota ohikoena adenokartzinoma **papilarra** da; pertsona zaharren artean agertzen da, urdail proximalean kokatua, eta gongoil linfatiko positiboak eta gibel-metastasiak sortzeko erraztasun handiagoa du. Histologikoki erdigune fibrobaskularraren inguruan hasten diren luzapen epitelialak sortzen ditu.

Figura 1.1. Urdaileko minbiziaren sailkapen histopatologikoak.

WHO (2010)	Lauren (1965)
Papillary adenocarcinoma	
Tubular adenocarcinoma	Intestinal type
Mucinous adenocarcinoma	
Signet-ring cell carcinoma	Diffuse type
And other poorly cohesive carcinoma	
Mixed carcinoma	Indeterminate type
Adenosquamous carcinoma	
Squamous cell carcinoma	
Hepatoid adenocarcinoma	
Carcinoma with lymphoid stroma	
Choriocarcinoma	
Carcinosarcoma	
Parietal cell carcinoma	
Malignant rhabdoid tumor	
Mucoepidermoid carcinoma	
Paneth cell carcinoma	
Undifferentiated carcinoma	
Mixed adeno-neuroendocrine carcinoma	
Endodermal sinus tumor	
Embryonal carcinoma	
Pure gastric yolk sac tumor	
Oncocytic adenocarcinoma	

Adenokartzinoma mukitsua urdaileko minbizien % 10 izan daiteke. Laginaren % 50a baino gehiago hartzen duten mukiz osatutako lakuak osatzen ditu, zeinen inguruan egitura papilarrak edota zigilu-eraztun motako zelulak ager baitaitezke.

Kohesio urriko kartzinoma da klasikoki, Laurenen sailkapenaren arabera, urdaileko minbizi difusoa osatzen duena. Horren barnean, zigilu-eraztun motako kartzinoma zeluladuna sailka daiteke, zelulok laginaren % 50 baino gehiago osatzen dutenean. Mikroskopikoki, linfozito, histozito eta zelula plasmatikoen itxura hartzen duten tumore honen zelulek submukosatik eta subserosatik barreiatzeko gaitasun handia dute, urdailetik kanpoko egiturak, hala nola duodenoa eta hestegorria, erasoz. Garapen horri esker, urdailaren horma osoan desmoplasia erreakzioa sortzen da, eta erraiak *linitis plastiko* deritzon zaku zurrunaren itxura hartzen du. Bestalde, iragazkortasun linfobaskularra sortu ohi du erraztasunez, eta gongoil linfatikoetatik hedatzeko gaitasun handia du, sarri askotan kartzinomatosi peritoneala ere sortuz.


Lau mota ohikoenez gain, MOEk beste zenbait mota ezohiko aipatu zituen, hala nola kartzinoma ezkatatsua, kartzinoma adenoezkatatsua, adenokartzinoma hepatoidea, koioekartzinoma, eta abar.

Patologia eta sailkapen molekularra

Aldaketa genetiko eta molekularren metaketa gertatzen da urdaileko minbiziaren garapenean. Horren barnean, onkogeneen aktibazioa, hazkuntza-faktoreen eta horien

hartaileen gainespresioa, gene tumore-ezabatzaileen inaktibazioa, DNA konpontzen duten geneen mutazioak, lotura-molekula desagertzeak eta aldaketak, eta hipermetilazio-prozesuak gerta daitezke.

Figura 1.2. Sailkapen molekularra



Horren inguruan, minbizi genomaren atlasaren sorreraren proiektuan, lau azpimota molekular proposatu berri dira urdaileko minbiziaren barnean: Epstein Barr birusarekiko positibo diren tumoreak, zeinetan PIK3CA mutazio jarraituak, DNAREN hipermetilazio garrantzitsua eta JAK2, CD 274 (PDL1) eta PDCD1LG2 (PD-L2) en amplifikazioa jasaten baitituzte; mikrosateliteen ezegonkortasuna duten tumoreak, terapeutikoki erabil daitezkeen proteinak partaide dituzten seinalizazio-bideak barnean dituzten mutazio-tasa altukoak; genomikoki egonkorak diren tumoreak, non urdaileko minbizi difusoa sailkatzen baita eta RHOA eta RHO familiako GTPsa proteina aktibatzaileen mutazioak aurkezten baititu; eta kromosomikoki ezegonkorak direnak, nabarmen aneuploideak direnak eta tirosin kinasaren hartaileen amplifikaziodunak.

1.1.7 TRATAMENDUA

Kirurgia aurreko ebaluazioa

Estadiaje klinikoan, garrantzitsua da tumorearen erazgarritasuna ikertzea. Esklusio-kriterioak zehatzak dira: urruneko metastasiak eta inbasio baskularra. Besteak beste, aorta, arteria hepaticoa, enbor zeliakoa edota arteria espleniko proximala. Gongoil linfatikoak

ere eskusio-kriterio dira bi egoeratan:

- Pankrearen buruan «bulky masa» lokalizatzen bada. Kasuotan, beharrezkoa izango da Whipple prozedura, metastasi ezkutuen arriskuarekin.
- Gongoil linfatikoak badaude pankrearekiko peritoneo atzetik edo azpitik, kaba aortan, edota mediastinoan. Gune kirurgikotik at daudela jotzen da.

Horrez gain, «linitis plastikoa» ezaugarri baztertzailatzat hartzen dute askok. Izan ere, pazienteen erdiak metastasiak dituzte, peritoneokoak bereziki, diagnostikoa egiterakoan, bai eta erasan nodala ere.

Kontrara, inbasio lokal-erregionala daukaten pazienteak sendagarritzat hartzen dira hasiera batean. Submukosaren inbasioa eta inbasio nodala duten pazienteek ezinbestekoa dute **diziplina anitzeko** balorazioa.

Aintzat hartu beharreko azken gauza garrantzitsua pazientearen operagarritasuna da; hau da, aurretik zeuzkan gaixotasunen larritasuna, anestesia elkartearen ASA eskalaren bidez neurtuko dena.

Tratamendu kirurgikoa

Urdaileko minbizia gehienetan gaixotasun hilgarria den arren, azken bi hamarkadetan asko hobetu da bizi-itxaropena, teknika kirurgikoen hobekuntzari, kirurgia inguruko tratamendu kimioterapiakoei eta diziplinarteko tratamenduei esker.


Endoskopikoki egindako erazteak onargarriak dira oso goiztiarrak diren urdaileko minbizietan, mukosan ezarrita (T1a), ondo desberdindutakoak (G1), ultzeratu gabeak eta 2 cm baino txikiagoak diren bitartean (III, B), tumoreotan gongoil linfatikoetako metastasiak (N1) izateko aukera teorikoa zero baita. Teknika moduan, submukosaren disezioa gauzatzen duten teknikak gomendatzen dira Gastrointestinal European Society-ren arabera. Ezaugarri horiek betetzen ez dituzten T1 motako tumoreak erazketa kirurgiko mugatu bidez trata daitezke, eta, D1 motako linfadenektomiarekin, proposak dira laparoskopio bidezko teknikak erabiltzeko.

Egun, **kirurgia** da mugatutako urdaileko minbizia (E IB-III) duen gaixoari eskain dakioken pronostikoa gehien luzatuko duen terapia. Urruneko metastasirik, odol-hodi handien inbasiorik edota gaixoaren aldetiko kontraindikazio medikorik ez badago, kirurgia izan behar da lehen aukera; eta kirurgia aurreko frogen arabera lokalki garatutakoa bada, kirurgia aurreko kimioterapia edo erradio-kimioterapia gehituko zaizkio. Biziraupena luzatzeaz gain, proba diagnostiko eraginkorra da kirurgikoa, bertatiko azterketa zabala egiteaz gain makrobiopsiak lortzeko aukera eskaintzen duelako, eta konplikaturako gaixotasun hedatuaren kasuan tratamendu aringarriak egiteko aukera ematen duelako ere bai⁹.

Kirurgia teknikaren eta bidearen aukeraketa tumorearen kokagunearen, hedapenaren, estadioaren eta histologiaren arabera da. Punturik garrantzitsuenak dira urdail-erazketaren zabalera eta gongoil linfatikoen erazketaren hedadura.

Gastrektomia osoa, normalean, urdail proximalean agertzen diren tumoreen kasuan erabiltzen da, eta gastrektomia **ez-oso**a urdailaren beheko azken bi herenetan agertzen diren tumoreetan onartzen da gehienetan. Orokorrean, Laurenen sailkapenaren hesteetako adenokartzinomaren histologia duten gaixoengan 5 cm-ko marjina proximalak eta distalak onartu ohi dira, eta 8 cm-koa UMLren histologia zutenengan. Hala ere, zenbait autorek, UMLa duten gaixoengan gastrektomia osoa gomendatzen dute, kokapena zein den begiratu gabe, batez ere linitis plastikoaren zantzuak daudenean. UHLko tumore distalen (Siewert III) kasuan, gastrektomia osoa gomendatzen da, berragerpen-tasa baxuagoa eta anastomosiaren konplikazio gutxiago sortzen baititu ikerketen arabera (III, A).

Figura 1.3. Gastrektomia motak.



Linfadenektomiari dagokionez, D1 linfadenektomiatzat hartzen da urdail inguruko gongoilak erazten direnean, eta D2tzat urdail inguruko, enbor zeliako inguruko, urdailaren ezkerreko, bareko eta gibel-arteria amankomunaren inguruko gongoilak erazten direnean. Bestalde, UICC/AJCC TNM 7. edizioaren sailkapenak 15 gongoilen erazketa jotzen du gutxienezkotzat estadiatze egokia bermatzeko. Ekialdeko herrialdeetan D2 linfadenektomia aspaldidanik frogatu eta gomendatu den artean (II, B), mendebaldean ugariak izan dira horren biziraupen-tasa altuagoak frogatu ezin izan dituzten ikerketak; gainera, pankreatektomiari eta esplenektomiari eragotzitako morbiditate-tasa altuak aurkeztzen zituzten. Azken ikerketen arabera, baina, epe luzera gaixotasunaren berragerpen lokalen tasa baxuagoak izan ditzake D2 linfadenektomiak, barea eta pankrea matentzeak

ekar ditzakeen morbiditate eta mortalitate (% 15, % 3) onargarriak gehituta. Beraz, azken gomendioen arabera (I, B), mendebaldeko herrialdeetan ere, gaixo osasuntsuen kasuan **D2 linfadenektomia** da gomendagarria, betiere kirurgia kopuru altua gauzatzen duten zentro espezializatuetan. Ez dago D3 linfadenektomia hedatuaren aldeko ebidentzia zientifikorik ez eta gomendiorik, sortzen duen morbiditateari eta hilkortasunari ez bazaie biziraupen-tasa onargarriak gehitzen (I, A).

Figura 1.4. Urdaileko minbiziaren barreiadura linfatikoa eta linfadenektomia motak.



Laparoskopia bidezko kirurgia, ziurra eta kirurgia osteko suspertze goiztiarrean eraginkor ikusi den arren urdaileko gaixotasunetan, oraindik frogatzeko daude honen eraginkortasuna D2 linfadenektomian, gorputz barneko anastomosietan eta epe luzeko biziraupen-tasen berdintasunean. Beraz, gaur egun urdaileko minbizi goiztiarraren tratamenduan gomendatuta dagoen arren, D2 behar duten minbizietan gold standarra izaten jarraitzen du bide klasikotik egiten den kirurgia irekiak, laparoskopia bidezko teknikak gero eta gehiago egiten ari diren arren zentro espezializatuetan.

Lokalki aurreratutako ezin erauz daitekeen gaixotasunari dagokionean, zenbait ikerketek adierazi dute **kirurgia aurreko kimioterapia eta erradiokimioterapia** lagungarri izan daitezkeela gaixoak potentzialki osatzailea izan daitekeen kirurgiara bideratzeko. Hala ere, egun, tratamendu bide hori ezin daiteke gomendatu ikerketa klinikoetatik kanpo dauden gaixoengan.

Hedatutako gaixotasunaren kasuan (M1), gastrektomiak ez du biziraupena luzatzen eta, beraz, kirurgia eremu paliatibora mugatzen da; hau da, mina, odoljariora, botaka eta buxadura-sintomak ekiditera (I, A). Ez da oraindik finkatu tratamendu **paliatibo** kirurgikoa

edo erradiazioa, endoprotesiak eta beste zenbait teknika biltzen dituen paliazio mediku-instrumentala aukeratzeko irizpiderik. Gibelesko lesio bakarren metastasektomia biziraupena luzatzearekin erlazionatzen ez den bitartean, kasu aukeratuetan egiten den biriketako metastasien erauzketak ekar dezake biziraupen-tasa mugatu bat.

Ikertu dira peritoneoko kartzinomatosiaren edota inplante bakanen tratamenduan erabiltzen diren kirurgia zitoerreduktorea eta **HIPEC** terapiak ere, baina ezin daitezke momentuz ikerketa klinikoetatik at gomendatu.

Taula/ Tabla 1.3. 2010. urteko sailkapen japoniarra. Linfadenektomia D1, D2 gastrektomia motaren arabera⁸.

Gastrektomia mota	D1	D1+	D2
Distala	1, 3, 5, 4sb, 4d, 6, 7	(D1) + 8a, 9	(D1) + 8a, 9, 11p, 12a
Totala	1-7	(D1) + 8a, 9, 11p	(D1) + 8a, 9, 10, 11p, 11d, 12a

Neoadjubantziako eta adjuvantziako tratamenduak¹⁰⁻¹¹

Fluoropirimidina eta platinen arteko konbinaziodun kirurgia bitarteko (kirurgia aurrean eta ostean), kimioterapia edo erradio-kimioterapia gomendatzen da gaur egun IB baino altuagoa den urdaileko minbizi erauzgarria duten gaixoengan (I, A). Kirurgia hutsarekin konparatutako ikerketek argi uzten duten arren biziraupen-tasaren luzapena (MAGIC: 5 urte % 23 vs % 36), ikerketa gutxi egin dira bi protokoloen arteko (KT-Z-KT eta KT/RT-Z) zein aukeratzeko laguntzen duen ikusteko, eta ez da oraindik definitu horien arteko konbinaketa egokiena. UHLko tumoreetan kirurgia aurreko erradio-kimioterapia izan daiteke egokiena.

Hala, R0 erauzketak gehiagotu, kirurgiaren konplikazioak gutxitu eta errekurrentzia-tasak hobetzeko, diagnostikatu gabeko mikrometastasien tratamendu goiztiarrari ekin behar zaio, **kirurgia bitarteko tratamendu kimioterapikoa** erabilita. MAGIC eskema terapeutikoa izan da erabiliena. Hala ere, kimioterapiaren erabilera ez dago gutziz babestuta, paziente askorengan ez delako tratamendua betetzea lortzen. Hori horrela, Europan asko erabiltzen den arren, ekialdean eta AEBn ez da oraindik hedatutako eskema. Bestalde, gaur egun FLOT eskema ari da nagusitzen, antza, tratamendua betearaztea areagotzen baita, eta horrek biziraupena luzatzea baitakar. Era berean, erradioterapiak neoadjubantziari dituen onurak ere ikertu dira, TOPGEAR estudioak ebakuntza aurreko erradioterapiari gehituz, eta CRITCS estudioak ebakuntza osteko erradioterapiari. Honako

taula honetan adierazi dira ikerketa nagusiak (**1.3 eta 1.4 taulak**). Azken aldian, gainera, immunoterapiaren erabilera ikertu izan da, ST03 ikerketa.

Kirurgia osteko tratamendua

Kirurgia aurreko kimioterapiarik jaso ez duten IB baino altuagoa duten gaixoengan lagungarri dira kirurgia osteko **kimio-erradioterapia (McDonald eskema)** edo kimioterapia soila (Z-KT/RT edo Z-KT) (I, A). Gaixo gehienengan, T2< edo N+ baldin bada, kirurgia osteko erradio-kimioterapia gomendatu ohi da (II, B). 5-FU/Leucovorin eta tartekatutako erradioterapiak biziraupen-tasa luzeak erakutsi ditu kimioterapia hutsarekin konparatuta. Kirurgia aurreko kimioterapia jaso duten gaixoengan, ostera, kirurgia osteko erradioterapiak ez du onurarik gehitzen, eta egokia izan ez den kirurgiaren ostean eskaini ohi da soilik. Erradioterapia fluoropirimidinadun tratamendu konbinatuarekin bat eman ohi da 45Gytako dosi osoa osatzen duten 1,8Gytako 25 frakziotan banatuta, asteen 5 frakzio emanez tartekatuta. Hala ere, erradioterapiarik gabeko tratamendu adjuwanteari dagokionez, aipatzekoa da Asian emaitza esanguratsuagoak lortu direla Mendebaldearekin konparatuz. Bada, ARTIST ikerketak ebakuntza osteko kimio-erradioterapia kimioterapia soilarekin konparatzen du, eta, emaitzen arabera, erradioterapiak ez dauka esangura nabarmenik adjuwantzian.

Hedatutako gaixotasunaren / gaixotasun metastatikoaren tratamendua

Hedatutako gaixotasunaren helburuak sintomak arintzea, bizi-kalitatea hobetzea eta biziraupena luzatzea dira. Gaixoak pairatutako sintomak, egoera fisikoa eta tumorearen mota histologikoa kontuan hartu beharreko puntuak dira tratamendu mota aukeratzeko unean.

Operatu ezin diren gaixoei, erauzi ezineko tumore lokalki garatua edota hedatutako (M1) gaixotasuna duten gaixoei tratamendu sistemikoa, kimioterapia, eskaini behar zaie, frogatu baita, tratamendu mediko paliatiboarekin konparatuta, biziraupena luzatu eta bizi-kalitatea hobetzen duela (I, A). Ausazkotutako ikerketa ugari egin izan diren arren, ez da oraindik kontsentsurik ezarri tratamendu egokien eta horien konbinaketan inguruan. Orokorrean onartu da Fluoropirimidina eta platinen arteko konbinaziodun tratamenduak erabiltzea gaixo osasuntsuengan (I, A). Capecitabina ere biziraupena luzatzearekin erlazionatu da (I, A).

Gaixo zaharrengan edota egoera basal txarrean daudenengan, leucovorin eta 5-FU, oxiplatinoa erabiltzen duten erregimenak gomendatzen dira, edo capecitabina bakarrik (II, B).

Pertsonalizatutako terapia zuzenduak

Aurretik azaldu moduan, azken aldian, urdaileko minbiziaren zenbait mota molekular ezberdin sailkatu dira, bakoitzak bere aldaketa genetiko eta epigenetikoak dituelarik. Lau

azpimota sailkatu berri dira «minbiziaren genomaren atlasean»: hala nola, Epstein Barr birusarekin erlazionatutakoa; mikrosateliteen desegonkortasuna duten tumoreak (MSI); genomei dagokienez tumore egonkorak, non urdaileko minbizi difusoa sailkatzen baita; eta kromosomikoki ezegonkorak direnak (CIN). Konkretuki, ikertuena den azken azpimota honek aldaketa ugari metatzen ditu Tyrosin Kinasa motako hartzaile diren zenbait onkogenetan, eta horien adibide dira HER2, EGFR, FGFR2 eta MET. Aurretik ikertutako aurkikuntza horiek garrantzi handikoak dira gaixo bakoitzaren tumore mota bakoitzaren aurka beren-beregi zuzendutako terapiak aukeratzeko.

HER2 positiboa duten urdaileko minbizien (% 10-15) aurkako **Trastuzumab** bezalako terapien inguruko ikerketek biziraupena luzatzea azaldu dute tratamendu kimioterapiko arruntekin erabiltzen denean (13,8 h vs 11,1 h). Gaur egun, hedatutako urdaileko minbiziaren tratamenduaren atal garrantzitsu bihurtu da HER2aren adierazpenaren ebaluazioa, eta horren aurkako tratamendu zuzenduen erabilera (I, A).

Hala ere, bide hori jarraituz, EGFR eta MET-HGF delakoen aurkako terapiak ere frogatu izan dira III. faseko ikerketetan, eta azaldu dituzten emaitzak ez dira hain itxaropentsuak izan. Bestalde, PD-1 bezalako tumore markatzaileen aurkako Pembrolizumab eta Nivolizumab bezalako **immunoterapiak** erantzun garrantzitsua eman dute iraunkorra den gaixo talde handi baten aurrean.

1.1.8 PRONOSTIKOA

Estadiajearen, histologiaren, kirurgiaren, adinaren eta sexuaren baitan dago. Dena den, kirurgia bidezko tratamendu adjubantea eta D2 linfadenektomia jasan dutenengan, batez besteko biziraupena 7,6 urtekoa dela kalkulatu izan da.

Metastasiaren maneia eta horrek duen zeresana indibidualizatua izan ohi da. Hauek ohikoak dira diagnostikoan, % 40 lokal-erregionalak eta % 60 urrunekoak, gibelean eta peritoneoan bereziki.

Errekurrentzia lokal-erregionalak lehendabiziko 3 urteetan ager daitezke, gunean anastomotikoetan batik bat.

Taula/ Tabla 1.4. III. fasean dauden ikerketa nagusiak.

Ikerketa	Estrategia	Gune geografikoa	Erregistro zenbakia	Aldagai estandarra	Aldagai esperimentalak	N
CRITICS II	Perioperatorioa	Holanda	NCT00407186	ECC perioperatorioa	ECC-KIR-RT CC	788
TOPGEAR	Neoadjubantzia	Europa	NCT01924819	ECF perioperatorioa	ECF-RT 5FU-KIR-ECF	752
ARTIST II	Adjubantzia	Hego korea	NTC01761461	KIR-S1	-SOX -SOX-RT S1	1000

KIR: kirurgia; KT: kimioterapia; RT: erradioterapia; 5FU: 5-fluorazilo CC: zisplatino, kapezitabina; ECC: epirubizina, zisplatino, kapezitabina; ECF: epirubizina, zisplatino, 5-fluorazilo; SOX: S1, oxaliplatino; CDDP: zisplatino; XELOX: oxaliplatino, kapezitabina; Bev: bevacizumab; CF: zisplatino, 5-fluorourazilo; FLOT: dozetaxel, oxaliplatino, leukoborin, 5-fluorourazilo; FOLFIRI: irinotekan, leukoborin, fluourazilo; DP: dozetaxel, zisplatino; LV: leukoborin.

Taula/ Tabla 1.5. adenokartzinoma gastrikoaren tratamendu gehigarriaren inguruko ikerketak.

Ikerketa	Estrategia	Herrialdea	Urtea	Aldagaiak	Kirurgia	Eskema	Pazienteak	Biziraute orokorra	P
INT 0116 (SWOG)	Adjubantzia	AEB	2001	KIR-KTRT vs.	%10 D2	5FU / RT	281	%50 3 urtera	0,005
				KIR			275	%41 3 urtera	
MAGIC	Perioperatorioa	Erresuma Batua	2006	KT-KIR-KT vs.	%43 D2	ECF	250	%36 5 urtera	<0,001
				KIR			253	%25 5 urtera	
ACTS-GC	Adjubantzia	Japon	2007	KIR-KT vs.	D2	S1 aho-bidezkoa	529	%72 5 urtera	Esanguratsua
				KIR			530	%61 5 urtera	
CLASSIC	Adjubantzia	Hego Korea	2012	KIR-KT vs.	D2	XELOX	520	%83 3 urtera	0,049
				KIR			515	%78 3 urtera	
ARTIST	Adjubantzia	Hego Korea	2012	KIR-KTRT vs.	D2	CDDP- capecitabina	203	%74 3 urtera	0,08
				KIR-KT			228	%78 3 urtera	
CRITICS	Perioperatorioa	Holanda	2007-2015	KT-KIR-KT vs.	-	ECC	393	%41 5 urtera	0,99
				KT-KIR-KTRT			395	%41 5 urtera	
FLOT4	Perioperatorioa	Alemania	2016	KT-KIR-KT vs.	-	ECF FLOT	360	%48 3 urtera	0,012
				KT-KIR-KT			356	%57 3 urtera	

1.1 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO

Sirva de introducción al estado del arte en cirugía del cáncer gástrico el artículo publicado en la revista Cirugía Española en 2018: **Material adicional 1**: “Current Status of Gastrectomy for Cancer: “Less Is Often More”. Cir Esp. 2018;96:603–605.

1.2 INTRODUCCIÓN: CÁNCER GÁSTRICO DIFUSO

1.2.1 INTRODUCCIÓN TEÓRICA

El cáncer gástrico es la tercera causa de mortalidad por cáncer a nivel mundial, con una supervivencia media de 24 meses. Presenta un crecimiento progresivo en occidente y existen pocas herramientas terapéuticas más allá de la cirugía en los estadios iniciales de la enfermedad, en los que el tumor se encuentra localizado en la pared gástrica. Según la clasificación de Lauren, la más utilizada clásicamente a nivel clínico, existen dos tipos principales de cáncer gástrico: el adenocarcinoma de tipo intestinal y el carcinoma difuso¹².

La incidencia del carcinoma difuso ha aumentado de manera progresiva hasta prácticamente igualar la del tipo intestinal en la actualidad. Se trata de una neoplasia agresiva que se presenta más frecuentemente en mujeres y en pacientes más jóvenes y sin antecedentes de patología gástrica preneoplásica.

La capacidad infiltrativa de estas células conlleva la temprana afectación de la submucosa y la diseminación intraparietal del tumor por todo cuerpo gástrico. Este proceso produce en su estadio final un engrosamiento difuso del estómago conocido como “linitis plastica” gástrica que hace referencia a la rigidez del tejido gástrico sin que exista clara tumoración como tal, en muchas ocasiones con mucosa normal. Todo ello conlleva un gran número de biopsias falsamente negativas, lo que dificulta el diagnóstico endoscópico y por lo tanto el diagnóstico precoz.

La principal característica histopatológica es la desdiferenciación celular y la pérdida de adhesión celular, creando nidos de células sueltas que no recuerdan la arquitectura glandular intestinal típica. Se asocia con frecuencia a la presencia de células de amplio citoplasma y núcleo desplazado, conocidas como células en anillo de sello, que cuando representan más del 50% de las células del tumor dan nombre al subtipo definido en la clasificación de la OMS como “Carcinoma gástrico de células en anillo de sello”. La pérdida de adhesión celular confiere a las mismas mayor capacidad de migración e

invasión vascular y linfática, convirtiéndolo en un tumor silente de rápida progresión¹³.

En cuanto al tratamiento, las guías clínicas habitualmente no recomiendan un tratamiento individualizado haciendo referencia al tipo de estirpe tumoral. No obstante, basándose en la diseminación inconcreta del tumor, algunos autores proponen la gastrectomía total para todos los cánceres gástricos de estirpe difusa asumiendo la elevada morbimortalidad perioperatoria correspondiente. Por otro lado, el tratamiento adyuvante clásico se muestra menos eficaz en estos tumores con muy escasas supervivencias y altas tasas de recidiva local y a distancia. A pesar de los múltiples estudios realizados al respecto, en la actualidad no existe ninguna diana terapéutica específica contra este tipo de tumor¹⁴.

La complejidad biológica y la sigiliosidad en su diseminación, asociadas a la limitación diagnóstica de la histopatología y la ausencia de tratamientos específicos, tanto quirúrgicos como adyuvantes, han convertido al cáncer gástrico difuso en un tumor de mal pronóstico. Por lo tanto, hemos considerado preciso poner el foco en este subtipo tumoral de cáncer gástrico y valorar la aplicación de los nuevos avances científicos y tecnológicos en la materia.

Los recientes progresos realizados en la descripción del genoma humano han resultado en la nueva clasificación molecular del cáncer gástrico en cuatro subtipos¹⁵. El cáncer gástrico difuso se clasifica entre los tumores genómicamente estables y presenta principalmente mutaciones relacionadas con las moléculas de adhesión en los genes CDH y la transición epitelio mesénquima mediante el gen RhoA¹⁶.

Las vías de señalización CDH1 y RhoA se encuentran frecuentemente afectadas en el CGD y habitualmente vinculados entre sí, lo que indica que la desregulación de estas dos vías de señalización estaría relacionada con la génesis del CGD. El RhoA se ha demostrado sobreexpresado en el CGD y se relaciona con el citoesqueleto y la migración celular. El aumento de la actividad de RhoA se ha relacionado a su vez con la desregulación de la E-cadherina.


Alteraciones genéticas o epigenéticas sobre E-cadherina conducen a la desregulación de la adhesión y estructura de las células epiteliales, interacciones estromales anormales, así como alteraciones en la migración y señalización celular¹⁷. Además de su papel en la adhesión célula-célula, la E-cadherina está involucrada en una serie de vías de señalización implicadas en la carcinogénesis. La pérdida de E-cadherina estimula las señales que inician la transición epitelio-mesénquima. Se cree que la E-cadherina forma parte del proceso mediante su conexión con el complejo citoplasmático de adhesión celular al citoesqueleto de actina, activando una serie de vías de señalización que incluyen WNT/ β -catenina, Notch, Rho GTPasas y EGFR.

- **Rho GTPasas:** La familia Rho de GTPasas es una familia de pequeñas proteínas G de señalización, subfamilia de la superfamilia Ras. Rho A, Rac1 y Cdc42 han sido

ampliamente estudiadas y se sabe que desempeñan un papel fundamental en la organización del citoesqueleto y la motilidad celular.

- WNT / β -catenina:** Las vías de señalización WNT son un grupo de vías de transducción de señales formadas por proteínas que transfieren las señales del exterior de una célula a través de la superficie receptora de dicha célula hasta su interior. La vía Wnt es crucial para la actividad de células epiteliales. Se cree que la disminución de la expresión de E-cadherina puede suprimir la señalización de Wnt / β -catenina mediante el secuestro de β -catenina en los puntos de contacto célula-célula.
- EGFR (receptor del factor de crecimiento epidérmico):** Por otro lado, las mutaciones en el dominio extracelular de E-cadherina pueden afectar a la interacción de E-cadherina con EGFR y conducir a la activación de EGFR potenciando aún más la motilidad celular a través de la activación de RhoA.
- NOTCH:** La vía de señalización Notch es una vía de señalización ligando-receptor activada por moléculas transmembrana, lo que implica que su activación controla el destino celular mediante la interacción de receptores y ligandos en la superficie de las células adyacentes. La vía de señalización de Notch se considera involucrada en tumores gástricos actuando con función dual de oncogén y gen supresor.

Figura 1.4. Vías de señalización mediadas por E-Cadherina.



El CDH1 es considerado por lo tanto un gen supresor tumoral en la carcinogénesis gástrica, participando en la génesis y la propagación de ambas formas de CG, esporádico y hereditario. Se conoce el papel específico de la E-cadherina en el desarrollo del CGD. Por un lado, mutaciones de la línea germinal CDH1 conllevan al cáncer gástrico hereditario difuso (CGDH), patología autosómica dominante caracterizada por alteraciones de la línea germinal en los genes CDH1 (E-cadherina) y CTNNA1 (alfa-E-catenina). Por otro lado, alteraciones epigenéticas de E-cadherina conducen a la expresión deficiente o ausente de E-cadherina que contribuyen al desarrollo de CGD esporádico.

En conclusión, E-cadherina es responsable de mantener la adhesión célula-célula intacta. Por lo tanto, la E-cadherina aberrante promoverá la desregulación de las vías de señalización mediadas por E-cadherina, teniendo un impacto en la adhesión, migración, invasión y supervivencia de las células. La pérdida funcional de E-cadherina hace que las células sean más resistentes a los estímulos apoptóticos.

Por lo tanto, una vez identificadas la E-cadherina y Rho GTPasas como actores clave en la adhesión celular y la organización del citoesqueleto, estos puntos se consideran vitales para inhibir la malignización de las células epiteliales y el aumento de su motilidad. La perturbación de estas dos vías principales y sus interacciones conducen a un comportamiento invasivo de la célula tumoral en el CGD, en el cual las células cancerosas forman, como ya se ha descrito, pequeñas masas colectivas que infiltran masivamente el tejido adyacente con una importante reacción estromal.

La rápida evolución de la investigación en análisis proteo-genómico a nivel experimental y su aplicación en clínica, han generado múltiples métodos de análisis bio-informáticos. Estos ayudan a establecer la relación entre los mecanismos moleculares que regulan la cuantificación de proteínas y el fenotipo del cáncer gástrico difuso (CGD), referido a las características clínico-patológicas y a la progresión de la enfermedad. Recientemente tres subtipos de CGD han sido identificados basados en proteínas expresadas diferencialmente: PX1 proteínas relacionadas con el ciclo celular; PX2 transición epitelio mesénquima (TEM); y PX3 proteínas que intervienen en procesos inmunológicos³².

Estos nuevos hallazgos pueden ser aplicados para diseñar nuevos y eficaces sistemas de diagnóstico, previsión pronóstica y tratamiento del carcinoma gástrico difuso. Estos y otros avances científicos en el conocimiento del proceso de cancerización del CGD deben divulgarse con el fin de conocer mejor la biología de la enfermedad y poder así realizar avances en su diagnóstico y tratamiento.

En este contexto se ha desarrollado un proyecto de tesis doctoral con el fin de poner de manifiesto las dificultades de manejo clínico y terapéutico del cáncer gástrico difuso que hasta ahora existían y valorar la aplicabilidad de los nuevos avances proteo-genómicos en la Cirugía de Precisión.


1.2.2 SARRERA KLINIKOA

KASU KLINIKOA URDAILEKO MINBIZI DIFUSOA «LINITIS PLASTIKOA»

Txileko kirurgilarien aldizkarian argitaratua. Material gehigarrian: Rev Chil Cir 2018;70(4):313-314

54 urteko emakumea. Sintoma gutxi, botaka egiten zuelako diagnostikatua, eta irudi-frogetan urdaileko distentsio larria OTAn. Gastroskopiak ez zuen tumorerik aurkitu, eta, eko-endoskopia bidez lortutako anatomia patologikorako urdailaren submukosako laginen bidez, zigilu-zelulez osatutako kartzinoma difusoaren infiltrazioa sumatu zen. Ebakuntzan urdail osoaren «linitis plastikoa» ikusi zen, eta gastrektomia osoa egin zitzaion. Emaitza: urdaileko kartzinoma difusoa, T3N2; IIIB. Kimio-erradioterapia jaso ondoren, 23 hilabeteren ostean hil zen peritoneoko kartzinomatosiak jota.

Irudia/ Imagen 1.1 OTA urdaileko paresia. Linitis plastikoaren irudi makroskopikoa, eta zigilu-zelulen infiltrazio submukosoaren irudi mikroskopikoa.



1 KASU KLINIKOak sortutako arazoak:


- Emakume gazteetan agertzen da UMD.
- Sintoma gutxi eta ez-espezifikoak sortzen ditu. Gastroparesia.
- rudi-frogak eta gastroskopia normalak dira sarri askotan. Ekoendoskopia behar izaten da eta biopsia anitzak.

1.2.2.2 KASU KLINIKOA KARTZINOMA DIFUSOAREN HEDADURA BEREZIA: «BLUMER EZKUTUA»

Kolonbiako kirurgia-aldizkarian argitaratua. Material gehigarrian: Rev Colomb Cir.2021;36:144-9

80 urteko emakumea. Aurrekaririk ez. Ondesteko tenesmoa eta beherakoa zituela-eta aztertua. OTAn heste zuzen eta urdaileko handitasunak nabaritu ziren. Gastroskopia bidez txarto ezberdindutako adenokartzinoma diagnostikatu zen (uT3N2), eta kolonoskopia bidez ondesteko estenosis minbizi arrastorik gabe. Ebakuntzan, urdaileko «linitis plastiko» aurkitu zen, metastasirik edota kartzinatosirik gabe. Douglasen zakuan heste zuzenaren estenosis sortzen zuen hantura nabaritu zen. Biopsia anitzak lortu ziren, eta kirurgiaren momentu berean aztertu zituen patologoak minbizi-zantzurik topatu gabe. Gastrektomia osoa eta linfadenektomia egin zitzaizkion, eta baita alboko kolostomia ere. Ez zuen konplikaziorik izan. Anatomia patologiko definitiboak urdaileko adenokartzinoma difusoa adierazi zuen (T4aN3a), hestegorriko marjinen infiltrazio submukosoak eragindako R1 erauzketa, eta Douglasen zakuko laginetan ere minbizi, submukosatik hedatutako zelulek sortua.

Irudia/ Imagen 1.2: Douglasen zakua serosa azpiko infiltrazioa edo Blummerren ezkutua. Tumorearen zelulen serosa azpiko hedadura, ondestearen aurreko horman.



2 KASU KLINIKOAK sortutako arazoak:

- Estadio aurreratuetan diagnostikatzen da UMD.
- Kartzinomatosi peritoneala sortu ohi du, eta, batzuetan, serosa azpiko hedapena.
- Douglasen zakuaren eta ondestearen infiltrazioa sortu dezake. “Blumerren ezkutua”.
- Kirurgia bidezko biopsiak sarri askotan negatibo faltsuak dira.
- Makroskopikoki normalak diren margen kirurgikoen erasana egon daiteke eta R1 erauzketak.


1.2.2.3 KASU KLINIKOA URDAILEKO MINBIZI DIFUSO HEREDITARIOA (UMDH)

Aurrekari pertsonal berezirik ez duen 40 urteko emakume baten kasua aurkezten da. Familiako aurrekari gisa, 37 urteko ama hil zen urdaileko minbizi difusoaren ondorioz, eta 32 urteko ahizpa bat, gida-kasu gisa onartu dena, zigilu-eraztun zelula motako urdaileko adenokartzinoma difusoak jota. Bere arrebak CDH1 genearen aldaera batean heterozigosia aurkeztu zuen: c.2195G>A Arg732Gln.

Honi lotutako familia-historia honako hau da

Zirkulu gorrian 40 urteko emakumea agertzen da 3 kasu klinikoa. Gorriz bere osaba ere, gure zentroan gastrektomia profilaktikoaren bidez operatua. Beltzez, urdaileko minbiziak hildako pazienteak. Grisean, gastrektomia profilaktikoa duten pazienteak. Paziente gorria, mutazioa duen adingabekoa, gastrektomia edo jarraipena egin erabakitzeke zain. Karratu urdinean hildako pazienteen ondorengo guztien mutazioa eta gastrektomia duten kasuen kopurua.

Figura 1.5. Gida kasuaren familia zuhaitza.



Urdaileko minbizi difuso hereditarioa (UMDH) UMDren noizbehinkako agerpenaz bestelako gaixotasuntzat hartzen da. Urdaileko minbizi difusorako joera autosomiko dominantea da. UMDH hasteko batez besteko adina 40 urtetik beherakoa da. 80 urterekin kalkulaturako minbizi gastrikoaren arrisku metatua % 70ekoa da gizonen kasuan eta % 56koa emakumeen kasuan.

Mutazio-eramaileen identifikazioa, deskribatzen den pazientearen kasuan bezala, garrantzitsua da; izan ere, zigilu-eraztuneko zelulen adenokartzinomaren bereizgarri diren foku mikroskopikoek, oro har, azpimunkosa barne hartzen dute, eta, askotan, ez dira erraz detektatzen endoskopia bidezko baheketaren bidez.


Mutazio zehatza aldaeraren heterozigosia izan zen CDH1 genean: c.2195G>A Arg732Gln). CDH1 genearen 14. exoian dagoen base aldaketa bat da, aminoazido aldaketa bat eragiten duena. Aldaera hori patogenikoa da literatura medikoan, hau da, minbizi gastriko difusoaren arriskua areagotzen du, minbizi gastriko difuso hereditarioaren sindromearekin lotuta. Ahizparengan deskribatutako aldaera 37 urte zitula urdail-minbiziak jota hil zen amarengandik dator.

CDH1 genean aldaera patogenikoa dituzten emakumeek, gainera, bularreko minbizia izateko arrisku handiagoa dute, batez ere minbizi lobularra. Gomendioek kontrol kliniko-endoskopiko gastrikoa barne hartzen dute, gutxienez urtean behin (Cambridgeko protokoloaren arabera). Alternatiba gisa, gastrektomia oso profilaktikoaren aukera aurreikusten da. Bere kasuan, gastrektomia oso profilaktikoa egin zen, Z lerroa barne, endekapen neoplasikoa izan zezakeen ehun gastriko guztia erazteko (**Irudia**). Anatomia patologikoak Laurenen kartzinoma gastriko difusoaren eta OMEren zigilu-eraztun

1. SARRERA / INTRODUCCIÓN

zelulen bi foku (T1a) erakutsi zituen. UMDaren presentzia egiaztatuan ez bezala, zeinean gomendatutako linfadenektomia D2 baita, UMDHrekin lotutako geneak dituzten pazienteengan, gastrektomia profilaktikoarekin D1 linfadenektomia dago gomendatuta, gongoil linfatiko makroskopikorik gabeko kasuetan gongoil positiboak egoteko arriskua % 1 baino txikiagoa baita.

Irudia/ Imagen 1.3. Gastrektomia osoa.



Bestalde, bularreko kontrol klinikoa eta erradiologikoa egitea gomendatzen da sei hilean behin, 30 urtetik hasita eta gutxienez urtean behin bularreko erresonantzia mamografiarekin txandakatuta. Alternatiba gisa, arriskua murrizteko bularreko kirurgia egiteko aukera ere badago. Gainera, literatura medikoan koloneko minbiziaren arrisku areagotuari buruzko zalantzak ere badaude, baina gida batzuetan odol ezkutuaren testa egiteko aukera aurreikusten da, gehienez bi urtean behin 40 urtetik aurrera, edo kolonoskopiak egiteko aukera, gehienez 5 urtez behin, batez ere, historia familiarra dagoenean.

Bestalde, deskribatutako aldaera heterozgosian doanez, ondorengoek eramaile izateko % 50eko probabilitatea izango dute, eta beraz, adin-nagusitasunean aholkularitza eta azterketa egitea gomendatzen zaie. Gure kasuan, adin nagusiko bi seme-alabetako bat heterozigosiarene eramailea da, eta beraz, gastrektomia profilaktikoa noiz egingo den erabakitzeke dago, ziurrenik 20-30 urte bitartean egingo dena.

3. KASU KLINIKO ak sortutako arazoak:

- Bada UMDaren forma hereditarioa, UMDH izenez ezagutzen dena.
- Kasu horietan, oso ohikoak dira identifikatu gabeko UMDak (T1a).
- Nolabaiteko gomendio-maila dago profilaxi moduan egingo den gastrektomiari osoari buruz.

2.

Hipotesiak Eta Helburuak Hipótesis y Objetivos

2.2 HELBURUAK	59
2.3 HIPÓTESIS	60
2.4 OBJETIVOS	61

2. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK/ HIPÓTESIS Y OBJETIVOS

2. HIPOTESIAK ETA HELBURUAK/ HIPÓTESIS Y OBJETIVOS

2.1 HIPOTESIAK

2.1.1 HIPOTESI KLINIKOAK

- Urdaileko minbizi difusoak ezaugarri biologiko bereziak ditu. Horrek berezitasun kliniko-patologiko konkrituak ematen dizkio tumoreari, eta, urdaileko beste minbiziekin alderatuta, tratamendu mediko eta kirurgikoekiko erantzun ezberdina.
- Orain arte, UMD duten pazienteak tumorearen azpimota kontuan hartu gabe tratatuak izan dira urdailaren erauzketa osoa edo ia-osoa eta linfadenektomia estandarra burutuz, eta horrela emaitzak ez dira egokienak izan.

2.1.2 HIPOTESI ALTERNATIBO ESPERIMENTALA

- Urdaileko minbizi difusoa proteomika teknikak erabilita tumorearen adierazpen proteikoaren arabera sailka daiteke, eta hori oso lagungarri izan daiteke gaixoen tratamendu pertsonalizatua gauzatzeko.

2.2 HELBURUAK

2.2.1 HELBURU KLINIKOAK

- Urdaileko minbizi difusoaren eta urdaileko beste tumoreen arteko ezberdintasun klinikoak, patologikoak, eta tratamenduen aurreko erantzuna aztertu, horrela, beren-beregi aukeratutako teknika diagnostiko eta terapeutiko ezberdinak aplikatu ahal izateko.

2.2.2 HELBURU ESPERIMENTALAK

- Urdaileko minbizi difusoaren alterazio proteiko bereizgarriak aztertu, urdaileko

minbizidun lagin kirurgikoetan.

- Proteomikaren ikerketak urdaileko minbizi difusoaren diagnostikoan eta tratamenduaren algoritmoetan daukan aplikagarritasuna ikertu doitasunezko kirurgiaren kontestuan.

2.3 HIPÓTESIS:

2.3.1 HIPÓTESIS CLÍNICA

- El cáncer gástrico difuso es un tipo de tumor gástrico de características biológicas concretas, lo que conlleva unas características clínico patológicas particulares y una respuesta a los tratamientos quirúrgicos y médicos diferente al resto de cánceres gástricos que plantea problemas en la práctica clínica diaria.
- En la actualidad, los pacientes con CGD son tratados independiente del subtipo tumoral con gastrectomía total o subtotal según la localización del mismo y linfadenectomía estándar, por lo que los resultados no son satisfactorios.

2.3.2 HIPÓTESIS ALTERNATIVA EXPERIMENTAL

- La regulación anormal de la función de las proteínas es uno de los factores más destacados de la oncogénesis tumoral. Por metodología proteo-genómica es posible descubrir y cuantificar las proteínas que participan en la carcinogénesis del CGD y correlacionarlas con los datos de cuantificación publicados en las bases de datos.
- Los distintos subtipos CGD, pueden ser clasificados según la cuantificación proteica, lo que puede ser de gran ayuda en el tratamiento individualizado de estos pacientes.
- Por ello, cabe esperar que la extensión de la cirugía del CGD ajustada a los subtipos moleculares, pueda mejorar el pronóstico de estos pacientes.

2.4 OBJETIVOS:

2.4.1 OBJETIVOS CLÍNICOS:

Valorar las diferencias clínicas, patológicas y de respuesta a los tratamientos del cáncer gástrico difuso tratado hasta ahora en nuestro hospital, para así poder aplicar diferentes técnicas diagnósticas y terapéuticas individualizadas.

2.4.2 OBJETIVOS EXPERIMENTALES:

Comprender como se perturba el proteoma del (CGD) como un objetivo de investigación quirúrgica. Determinar en muestras quirúrgicas las alteraciones proteicas diferenciales del cáncer gástrico difuso.

La integración de clínica y proteómica y su aplicación en la cirugía de precisión. Valorar la aplicabilidad del estudio proteómico en el algoritmo diagnóstico-terapéutico.

3.

Materiala eta metodologia Material y metodología

3. MATERIALA ETA METODOLOGIA	65
3.1 Estudio 1: IMPACTO DE LA ANATOMÍA PATOLÓGICA EN EL PRONÓSTICO DEL CÁNCER GÁSTRICO	67
3.2 Estudio 2: VALOR PRONÓSTICO DEL DIAGNÓSTICO Y TRATAMIENTO DEL CÁNCER GÁSTRICO EN EL H.U.CRUCES	71
3.3 Estudio 3: INNOVACIÓN EN TÉCNICA QUIRÚRGICA: “Gastrectomía 95% totalmente laparoscópica”	73
3.4 Estudio 4: ESTUDIO DE PROTEÓMICA SOBRE PIEZAS QUIRÚRGICAS DE CANCER GÁSTRICO DIFUSO.	74

3. MATERIALA ETA METODOLOGIA/ MATERIAL Y METODOLOGÍA

3. MATERIALA ETA METODOLOGIA

Tesi-lana gauzatzeko, bi arlotan banatu da ikerketa. Alde batetik, alor klinikoa, bi ikerketa erretrospektiboren bidez gauzatu dena: urdaileko minbizi difusoaren gure inguruko egoera eta tratamendua aztertuz, eta, bestetik, Luxenburgoren egindako egonaldian ikasitako teknika kirurgiko berri baten emaitzei buruzko ikerketa prospektiboa. Bestalde, alderdi esperimentalak, UMDaren lagin kirurgikoekin egindako proteomika bidezko ikerketa.

a) Alde klinikoa

3.1 ikerketa. Ikerketa epidemiologiko erretrospektiboaren ikusketa analitikoa. Euskadiko tumoreen erregistroan bildutako gaixoen datuekin gauzatu da. Gurutzetako ospitalean 2005-2014 bitartean tratatutako urdaileko minbizi guztiak aztertu dira. 10 urte horietan urdaileko minbizia izan duten 1.052 pazienteren anatomia patologikoak izan dira aztergai. Kasuen ezaugarri kliniko eta patologikoen eta jasotako tratamenduen ikerketa deskribatzailea gauzatu da.

Lanaren helburu nagusia izan da **Laurenen sailkapena eta MOEren sailkapen histopatologikoak** aztertzea, eta baita horiek urdaileko minbiziaren **pronostikoarekin duten erlazioa** ere. Sailkapenetako azpimota bakoitzaren ezaugarri klinikoak deskribatu dira, eta sailkapen biak konparatu. Horrez gain, gaixotasunaren biziraupenaren aldagai bakarreko eta aldagai anitzeko azterketak gauzatu dira.

3.2. ikerketa. Ikerketa epidemiologiko erretrospektiboaren ikusketa analitikoa. Gurutzetako ospitaleko Kirurgia Zerbitzuan 2010-2014 urte bitartean operatutako urdaileko minbizien gainean egindako ikerketa-lana. Bost urte horietan osatzeko asmoarekin operatutako 222 kasu izan dira aztergai. Kasuen ezaugarri kliniko eta patologikoen eta jasotako tratamenduen ikerketa deskribatzailea gauzatu da.

Lanaren helburu nagusia izan da pazienteen **ezaugarri klinikoaren eta jasotako tratamenduen** eta minbiziaren **pronostikoaren arteko erlazioa** ikertzea. Urdaileko minbizi difusoari buruzko analisi berezia egin da. Ezaugarri klinikoak deskribatu dira, eta horiek biziraupenarekin duten erlazioa ikertzeko aldagai bakarreko eta aldagai anitzeko azterketak gauzatu dira.

3.3 ikerketa. Luxenburgoko Centre Hospitalier Luxembourg-en egindako hiru hilabeteko egonaldian, urdaileko minbizia tratatzeko erabiltzen duten «% 95eko gastrektomia gutziz laparoskopikoa» aztertu da ikerketa prospektibo baten bidez.

b) Alde esperimentalak

